



ttipi-ttapa



LEITZAKO INAUTERIAK / 27

**Mendiaren Eguna
eginen dute
larunbat honetan
Beran / 12**

**Bertsoa tresna
didaktiko bihurtzeko
proiektua Lesakako
Irain eskolan / 15**



**Goizuetako hainbat
kontu hizpide
Unai Miranda
alkatearekin / 32**

**Euskal Nobela
Beltzaren Astea
urtarrilaren 23tik
29ra Baztanen / 36**

SINADURAK



MONIKA
AGIRRE
CASCALLANA / 3



AITOR
AROTZENA
ALBIZU / 3



NAHIA
SEMPER
MAZIZOR / 4



ENAIT
IPARRAGIRRE
ZINKUNEGI / 4



ZOKKETA / 56



Manex MORENO UHARTE | Leitzako dokumentalgilea

«MEZUA DUTEN ISTORIOEKIN LAN EGITEA GUSTATZEN ZAIT»

LHL erronkako lantaldearen eskariz, Leitzan estreinatu duten *Ertzak leuntzen* dokumentala egin du 25 urteko leitzarrak. Herrian zegoen arazo bat bistaratzeko helburuarekin egin dute, eta pozik dago izan duen erantzunarekin. / 7

Xaloea Telebistak 25 urte

Mende laurden beranduago, tokiko informazioa euskaraz zabaltzeko lanean segitzen du Xaloea. / 10



**EZ NAZAZU DEITU
PLASTIKOEN EDUKIONTZIA.
ONTZIEN EDUKIONTZIA NAIZ!**

EDUKIONTZI HORIAN

PLASTIKOZKO, METALEZKO ETA
TXAPAZKO ESTALKIAK ETA TAPOIAK

FILM-PAPERA ETA ALUMINIO-PAPERA

TARRINA ETA JOGURT-ESTALKIAK

ALUMINIOZKO ETA POLIEXPANEZKO ERRETILUAK

PLASTIKOZKO ONTZIAK ETA POLTSAK

ONTZI METALIKOAK

AEROSOLAK

BRIKAK



Zalantzak badituzu, bilatu ikur hau zure ontzian.





NIRE TXANDA

MONIKA AGIRRE CASCALLANA

Ezin asmatu

Euria leher kanpoan, Anestesia taldearen *Erantzun* diskoa etxeko bozgorailuan eta botilako Alhambra garagardo hotz on bat eskuan, ordenagailuaren aitzinean jarri naiz, *Nire txanda* atal hau idazteko asmoz. Honako hau ez da lehenbiziko saiakera, bizpahiru aldiz hasi bainaiz lehenagotik teklatuan behatzak dantzari zer bait erran nahirik, baina deus ez, ez dut lortu.

Esaldi bat idatzi, bi, dena borratu, berriz hasi. Gelditu gabe paragrafo bat idatzi, hori behin leitu, bitan, hirutan: ezta ere, hola ere ez. Berriz bueltan ezabatu eta xuritik hasi. Eta ni ez naiz, preseski, gauzei hamaika buelta ematen aritzen den horietakoa, baina trabatu egin zait idatzi hau: ezin korapiloa askatu. Azken finean, ez da hain zaila erran nahi dudana, baina, aldi berean, bada aski gaitza. Nola agurtu lagun bat, berriz ikusiko ez duzun laguna, 900 karaktere eskas izan behar dituen testu batean?



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Goizean goiz motibazio bila

Ez da erraza asteburu berean Hertzainak, Messi eta Maialen (hiruak mitoago are) *izartu* dituen urte bukaeraren ondotik eguneroko errutinari ekiten. *Goizean goiz hasi behar dut motibazio bila...* Beraz, urte berrian, segi dezagun seme-alaben txistu emanaldi, herriko futbol taldeen gol eta auzoko elkartean antolatutako bertso-afari xumeez gozatzen.

NABARMENTZEKOAK

XANTI
UTERGA
KIROLARIARUTH
GONZALEZ
MEDIKUA

Eguberrietako erremonete txapelketa-Martiko Sari Nagusia irabazi zuen abenduaren 22an Xanti Uterga doneztebarrak. Aimar Jabalera herritararen kontra 30-19 nagusitu zen.

Lesakako Lehen Mailako Arretako zuzendari Ruth Gonzalezek dimisioa eman zuen abenduaren 21ean «egoerarekin etsita». Etxalarko eta Berako mediku izaten segituko du.

GIBELERA BEGIRA



2013-01-03 · TTIPI-TTAPA · 581 zk.

Jon Jaunarena pilotariarekin solasean

Hiru txapela jokoan eta hiruak irabazi zituen Jon Jaunarena pilotariarekin elkartu zen duela 10 urte TTIPI-TTAPA. 20 urte zituen orduan, eta profesional mailan bi urte nahikoak izan zituen historiaren parte bihurtzeko, eta urte berean promozio mailako hiru txapelak irabazteko. «Hogei urterekin egin dudana lortzea ez nuen inondik inora espero», nabarmendu zuen Jaunarenak. Lorpen pertsonalaz harago, txapelek «lehenengo mailan jokatzeko aukera» ematen zutela azaldu zuen, eta hori «ilusio handiz» bizi zuela: «Gauzak ahal dudana hobekien egitera irten behar dut kantxara. Lanean jarraituko dut orain arte bezala eta lesiorik izaten ez badut bidea errazagoa izanen da».



erran.

TOKIKOM

Argitaratzailea

TTipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Berriemaileak

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantza eta Iraia, Irune Elizagoien,
Maider Petrirena, Oihana

Kalparsoro, Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Jean Louis Bessonart, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebrea

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko
udalak, Malerreko Zerbizuen
Mankomunitatea.

2023ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	45€
Leitza	36€
Hego Euskal Herria	50€
Ipar Euskal Herria, Europa	100€
Amerika eta Australia	152€



KOLABORAZIOAK

NAHIA SENPER MAZIZIOR

Bera, 1924

Pio Barojak *La Familia de Errotacho* lanean eta Pablo Martín Sanchezek *El anarquista que se llamaba como yo* liburuan aipatutako 1924an Beran izandako gertakari historiko hau ezagutzera eman nahiko nuke.

1923an, Alfonsito XIII.aren monarkiaren laguntzarekin, Estatu espainiarrean Primo de Riveraren diktadura ezarri zen, honek, erakunde anarkista, errepublikano eta komunisten erbesteak eta jazarpena eragin zituen. 1924ko azaroaren 6ko iluntzean, 40 lagun inguru ateratu ziren Donibane Lohizunetik, iraultzarako deia eginez. Muga zeharkatu eta Berara ailegatu ziren arratsean. Miguel Berasain aguazilak ikusi eta Guardia Zibilaren kuartelera deitu zuen, kontrabandistak zirelakoan. Segidan, bi guardia zibil kuarteletik abiatu eta Argaitz harrobian aurkitu zuten taldea.

-¡Alto la Guardia Civil!

-¡Compañero! ¡Somos nosotros! ¡Los de Francia! ¡Los que esperabais!

-¡Alto! –erran zuen guardia zibilak.

-¡Somos nosotros! ¡Los de San Juan de Luz! ¡Muera Primo de Rivera! ¡Viva la República!

Guardia Zibilak bi tiroekin erantzun zuen, eta, balen trukea hasi zen. Ondorioz, bi guardia zibilak hil ziren. Hortik aitzinera, nahasmen handia sortu zen taldean. Bertako eta inguruko orde-

na publikoko indarrak –Guardia Zibila, karabineroak...– antolatu eta errepresioa eta atxilotetarako hasi ziren. Bi guardia zibilez gain, talde iraultzaileko lau kide hil ziren eta 27 zauritu. Bertzeek Iparraldera ailegatzeari lortu zuten.

«JABETU BEHAR DUGU MEMORIA HISTORIKOAK DUEN GARRANTZIAZ»

Azaroaren 9an, guardia zibilak hileta elizkizunak ospatu ziren, Nafarroako agintari gorenak bertan zirela. Ekitaldi bukaeran, Nafarroako gobernadore zibilak hitzaldi patriotikoa eman zuen.

Justizia Militarrek bere gain hartu zuen kasua, auzipetu gisa lau kide zeuden: Pablo Martín Sánchez, 25 urte, Barakaldoko (Bizkaia) ezkongabea; Enrique Gil Galaz (datu ezagunik gabe); José Antonio Vázquez Bouzas, 29 urte, Arroilakoa (Lugo) eta Julián Santillán Rodríguez, Quintanilla de la Matakoa (Burgos), guardia zibil ohia. Epaiak azaroaren 14an Iruñean egindako Gerra Kontseiluaren zigorra ezeztatu zuen eta Martín Sánchez, Gil Galaz eta Santillán Rodríguez heriotza zigorrera eta hildako guardia zibilak familia bakoitzari 5.000 pezeta ordaintzera kondenatu zituzten. Vázquez Bouza absolbitua izan zen eta epaile militarren esku gelditu zen. Abenduaren 6an, goizaldean, hiru presoak fusilatzeak patoria eraman zituzten. Bidean, Martín Sánchezek ihes egitea lortu, harresitik salto egin eta segidan hil zen, odol putzu batez inguratutik. Aipatzekoa da Primo de Riveraren diktadurak gertakariaren nondik norakoak handiagotu eta bere erregimenaren indartzeak erabili zituela.

Gure herrian gertaera historiko garrantzitsuak izan dira eta transmisioaren garrantzia azpimarratu nahiko nuke. Memoria Historikoak gure gizartean duen garrantziaz jabetu behar dugu eta gure ondorengoei azaldu eta gizartean interesa piztu.

Gaizki erranak barkatu eta ongi erranak gogoan hartu!



EÑAUT IPARRAGIRRE ZINKUNEGI

Enpresari eta agintarien erasoaldiaren aurrean

Kapitalismoaren krisi sakona bizitzen ari gara. Bankari eta enpresari handiak negozioa egiten ari dira krisi honen kontura, langileen soldatei eraso egiten ari diren bitartean. Hau ez da zerbait naturala, hau enpresari handien eta agintarien erasoaldi bat da: banku zentralena, nazioarteko diru funtsena, energia konpainia handiena, putre funtsena, etab. luze bat. Hauen diru gosea langilearen miseria handitzean oinarritzen da.

Azken urteei begiratuz ikus dezakegu joera hau gelditzeko etorri dela. Izan ere, kapitalismoaren ziklo ekonomiko berri batean sartu gara eta ziklo horretan, langileen pobrezia eta eskubideen ezabapena ez dira salbuespenak izanen, normaltasun berria baizik.

Politikari profesionalak, langileon aurkako erasoaldi honen parte dira. Ez bakarrik politika parlamentarioa eliteen menpekora delako, baita erasoaldi honetako onuradunetako bat politikari profesionalak direlako ere. Hilabetero alderdi politikoetako milaka liberatuen soldadak ordaintzen dizkiete, beraien egoitzak eta gastuak ordaintzen dizkiete, administrazio zein enpresetan karguak eskuratzen dituzte eta bertzelako pribilegio batzuk dituzte. Hau da, enpresari eta bankari handiek abiatutako erasoaldiaren onuradun zuzenak dira. Egoera honen

onuradun izaki, ez dute herritarren bizitza hobetzeko interesik. Nahi dutena erraten ahal dute, baina ez gaituzte engainatuko: salbuespen politika ilegalak aplikatu dituzte, kode penalak gogortzen ari dira, militarren

«GAZTEEN ARTEAN ETORKIZUN DUINA IRUDIKATZEA GERO ETA ZAILAGOA DA»

aurrekontua areagotu dute gerra testuinguruko zifrak ikus daitezkeelarik (gerrara eramanez gaituzte?), poliziaren baliabideak handitu eta hauen kondizioak hobetu dituzte... Ikus dezakegu zer egin duten politikariek azken urteetan.

Beraien sakelak goraino betetzen dituzten bitartean, langileen bizi baldintzak okertzen doaz, proletarizazio prozesu orokorra martxan dago. Orokorrean bai, baina gazteen esparruan are agerikoagoa da hau. Lan baldintza prekarioak, bizi ereduaren okertzea, prezioen igoera eta autoritarismoaren gorakada nagusi dira gazteen artean. Etorkizun oparo edo duin bat irudikatzea gero eta zailagoa da gazteen artean, miseriaren soldaten truk lan egiten delarik, eskubide politikoak gero eta murriztagoak direlarik, etab.

Egoera honen aitzinean, urtarilaren 28an mobilizazioetarako deia egin du Gazte Koordinadora Sozialistak Iruñean eta Bilbon, *Enpresari eta agintarien erasoaldiaren aurrean, gazte langileok borrokara!* lelopean. Gauza jakina da mobilizazio batek ez duela enpresariaren erasoaldia bukatuko, baina gazteen zein helduagoen artean antolakuntza eta borrokarako grina hedatzeko erabili nahi da. Gero eta jende gehiago eta gero eta lurralde gehiagotan mobilizatzeko testuingurua sortu nahi da, baita enpresariaren eta politikariaren eraginpetik kanpo antolatzen segitzeko bitartekoak sortu ere. Horri bultzada bat emateko erabili nahi dira mobilizazio hauek.

11 GALDERA LABUR

SARA DORREGARAY OYAREGUI IRURITAKO KARGUDUNA

«Herria maite dut, parajeak, karrikak eta jendea»

Nola definituko zenuke zeure burua?

Herria maitatu eta zaintzeagatik edozein gauza eginen duen iruritarra.

Zein dira zure zaletasunak?

Naturan ibiltzea, bere sekretu eta xokoak harrapatuz. Musika eta eskubaloizalea naiz, baina ez dut nahiko nukeen denbora denetan aritzeko.

Zein ikasketa egin dituzu?

Arkitektura ikasketak burutu nituen Iruñean, masterra Madrilen eta momentu hauetan doktoretza egiten ari naiz.

Iruritako alkatetza taldean egon zara azken agintaldian. Zergatik?

Aukera eman zidatenean ez nuen zalantzarik izan. Herria aunitz maite dut, parajeak, karrikak eta jendea. Herri ttiketian gauzak egiteko gogo beharrezkoa da, eta nik sobe-

ran daukat. Formakuntzaren-gatik herriari laguntzeko aukera aunitz ditudala uste dut.

Lan haundia da?

Pello alkateak jende gogotsuz inguratzea lortu zuen, eta horrek lana erraztu zuen. Posible izan dudan guzietan gomen-dioak eta lanak egin ditut, nahiz eta nahi baino gutiagotan izan ikasketengatik.

Arkitektoa izateak laguntzen du?

Bai, gauza haundirik egin ez dugun arren. Gehienbat erai-kuntza eta karrikei dagokienez, bertze sentsibiltate bat daukagu, gure formakuntzaren parte delako. Dokumentu eta lanen prestakuntzan ere gai aunitz kontuan izan behar dira.

Zein behar ikusten dituzu herrian?

Larriena herriko irisgarritasun arazoa da. Egoera txarrean



dauden sobera espaloi ditugu, batez ere herrigunean. Uraren azpiegiturak ere argitu eta konpontzen akitu behar da, azken udan gogorki lanean aritu diren arren, aunitz gelditzen baita.

Gazteak inplikatzeko dira?

Urte aunitzez errelebo arazoa izan da, baina ez inplikazio ezagatik. Badirudi orain gazteak gehiago inplikatzeko direla, intentzioak behinik behin badira.

Kargudun izaten segituko duzu?

Gustatuko litzaidake, nahiz eta nire esku ez egon. Alkatearen

lan egiteko moduaren arabera antolakuntza desberdina izaten da. Ni prest nago segitzeko.

Zure asmoak epe motzera?

Herritarrendako gauza ttikiak egiten segitzea, nahiz eta momentuan aisialdi sobera ez eduki gehiago inplikatzeko.

Eta epe luzera?

Doktoretza akitzea eta herri-arengatik gauza handiagoak egitea gustatuko litzaidake, adibidez, ondare naturala, kultura eta turismo jasangarria sustatzeko planak lantzea.



Merkealdia

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak

Zaindu maite duzun hori...

Nola erran?

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.


*'Kapazak gara' ala 'Kapaz gara'?

Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiaren ageri diren adibideetan, gehienak *kapaz* soliaren egokitasunaren lekuko dira. Subjektua plurala denean ere *kapaz* da, eta ez **kapazak*.

-*Edozer lan egiteko *kapazak gara* > Edozer lan egiteko *kapaz gara*.

Parekoak dira *kapaz* izan (Heg.) eta *kapable* izan (Ipar.). Bertzeak bertze, gauza izan eta gai izan esapideak dituzte sinonimo.

Osatu erran zaharra



Zein da zuzena

'*Salda dago' ala 'Badago salda'?

Adizki trinkoen kasuan, ba- aurritzia ezarri beharra dago galdegaia baiezkotasuna dela adierazteko; beraz, honako modu hauek dira egokiak:

- Badago salda (ere) / Salda (ere) badago;
- Bada salda (ere) / Salda (ere) bada;
- Badugu salda (ere) / Salda (ere) badugu...

Baina **salda dago* ez da zuzena.

Galdera egokia, berriz, honela da:

- Ba al duzue/dago saldarik?

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!

 info@ttipi.eus

 744 48 43 61



Manex Moreno ezkerrean kamararekin, LHL erronkako Iraitz Uriarteri eta Iker Gomezi grabatzen. LHL

«Ikusezina bistaratzeko aukera ona izan da 'Ertzak leuntzen'»

MANEX MORENO UHARTE LEITZAKO DOKUMENTALGILEA

Joan den azaroan Leitzan estreinatu zuten *Ertzak leuntzen* dokumentalaren egilea da. Pozik dago izan duen erantzunarekin eta dagoeneko hainbat bazterretatik hartu du emanaldiak egiteko deia

G. PIKABEA LEITZA

Etorkizunera gehiegi begiratu gabe, momentua bizitzea maite du Manex Moreno Uhartek (Leitza, 1997). Dioenez, «etorkizunera begiratura estutu egiten zara, eta gazteen errealtatea ikusita ez da ideiarik hoberena». Momentuan momentuko nahiei eta erronkei erantzutea gustatzen zaio.

Besteak beste, Katez musika taldeko gitarraista da, eta hainbeste maite duen zaletasun horri bidea emanez, soinuari lotutako goi mailako ziklo bat egin zuen Batxilergoa bukatutakoan. «Batxilergoan ez nintzen oso ikasle ona eta ez zitzaidan gehiegi gustatzen ikasten genuena. Ez nekien

zer ikasi eta soinuak musika-rekin lotua dagoenez, hortik segitu nuen». Handik unibertsitatera jo zuen; «lan mundurako aukera gehiegirik ez zegoela ikusita, ikus-entzunezko komunikazio ikasketak egitea erabaki nuen». Bide horretan «geroz eta gusturago» sentitu zen eta horregatik erabaki zuen koska bat gehiago egitea; Bartzelonara joan zen dokumentalgintzako masterra egitera. Eta hara non, 25 urterekin ikus-entzunezkoen munduan ibilbide polita osatzen ari da. Ereindakoaren azken alea Leitzako LHL erronkaren eskariz egin duen *Ertzak leuntzen* dokumentala izan da. Horretaz eta beste hainbat

kontuz mintzatu da Leitzako gaztea.

Nolako dokumentalak egin dituzu orain arte?

Aurrenekoa karreraren egin genuen dokumentala izan zen, Arrasate eta Aramaio inguruan AHTak baserritarrei egindako kalteei buruzkoa. Hurrengoa masterrean egin genuen, *El barco que atravesaba la montaña*. Katalunian sei emakume bakarrik bizi dira arrantzatik, eta horietako baten bizipenak bildu genituen. Irailean hasi ginen zabaltzen. Horren ondoren, *Ertzak leuntzen* izan da azkena, profesionalki egin dudana aurrenekoa.

Nola sortu zen *Ertzak leuntzen* egiteko ideia?

Idea LHL erronkako lantaldekoek proposatu zidaten. Bazekiten dokumentalgintza ikasten ari nintzela. Oso proiektu interesgarria egin zuten eta nolabait betikotu nahi zuten. Artxiboan ibilbide guziko irudi pila zituztela eta, dokumental bat grabatzea posible izanen ote zen galde-tu zidaten. Ni garai hartan Bartzelonan bizi nintzen, eta banekien zaila izanzen zela, baina baietz esan nien. Urte osoan elkarlanean aritu ginen. Herrian zegoen arazo bat bistaratzeko aukera ona izan zitekeela ikusi genuen.

Zer moduzko esperientzia izan zen?

Esperientzia ona. Alde batetik, gogorra eta nekagarria izan zen lan karga haundia izan zelako, baina bestetik, ikasketa prozesu haundia. Uste dut bi aldeak begiratu behar direla. Pozik gaude emaitzarekin eta hori da inportanteena.

Azaroaren 26an aurkeztu zenuen dokumentala herriarren aurrean. Nolako balorazioa egin zenuke?

Aurkezpena ongi atera zen, kasik 200 lagun bildu ziren, eta aurkezpenaren ondorengo feedbacka oso ona izan zen. Grabatutako →



Manex Moreno arduratu da 'Ertzak leuntzen' dokumentalaren aurreprodukzioaz, produkzioaz eta postprodukzioaz.

—> jendea oso pozik gelditu zen eta ni ere bai jendearen erantzunarekin. Pertsonalki ez nuen disfrutatu dokumenta ikusterako momentuan, ez nintzen lasai egon. Baina bukatuta, jendearen iritzia jakindakoan, pozik gelditu nintzen. Gainera, hainbat emanaldi atera dira eta pozik gaude. Dokumentalak hainbat irtenbide eduki ditzake eta distribuzio lan horietan ilusioatuta gaude.

45 minutuko dokumentala da. Baina horren atzean zenbateko lana dago?

Ordu pila bat. Pasa den urtean bi dokumentalekin aritu nintzen aldi berean lanean (*El barco que atravesaba la montaña* eta *Ertzak leuntzen*) eta goizez batekin eta arratsaldez bestearekin aritzen nintzen. Irailetik aurrera, ordea, *Ertzak leuntzen*en azken grabazioekin eta postprodukzioarekin lanaldi osoan aritu nintzen.

Zerk egiten du berezi dokumental hau?

Herrian dauden mugikortasunerako zailtasunak erakustez gain, inklusibitatea bere osotasunean landu nahi izan dugu. Hori izan da helburua. Dokumentala «berezi» beraien etxeko atea ireki diguten protagonistek egin dutela esanenuke. Beraien egunerokotasuna nolakoa den erakutsi digute, denongan hausnarke-ta sortuz. Kontzientziazio

dokumental bat dela esan genezake.

Beraz, dokumentalak ertzak leuntzeko balio izatea nahi zenuke...

Ahal bada bai. A eta B talderik ez dagoela ulertu behar dugu, ikuspuntu aldaketa denen onerako dela. Adibide bezala, nik, ustez, ez daukat mugikortasun arazorik, baina egunen batean hanka okertu dezaket eta makuluekin ibili beharko dut egun batzuetan. Momentu horreratik aurrera mugikortasun arazoak izanen ditut. Hemendik aurrera, edozein planteamendu egiterakoan, jendeak bi aldiz pentsatzen badu, garaipen bat izanen da. Ez dezala aurrena proiektua egin eta gero laguntza behar duen jendea badela ohartu. Horregatik diot erronka ez dela hemen bukatu. Jendeak kotxeak aparkatzerakoan, plazak errespetatzerakoan, obra bat diseinatzerakoan edo halako beste hainbat egoeratan ikuspuntua aldatzea da helburua.

Esanahi bikoitza du *Ertzak leuntzen* izenburuak: ertzak edo oztopoak leuntzea eta erdigunean eta ertzetan dauden arteko mugak leuntzea. Zaila izan da mezu hori ematea?

Dokumentala elkarrizketek gorpuzten dute. Elkarrizketatuak gaian jasoak dira eta beraien hitzak lotuz mezua helaraztea ez da zaila izan. Izenburuaren metaforak mezu hori biltzen du bere hitzekin.

Zer egin zaizu hunkigarriena dokumental honetan?

Asko ikasi dut. Protagonisten esperientzia ezagutu izana eta beraiekin parte hartu izana oso inportantea izan da. Beraien bizitzan eta beraien etxeetan sartu naiz eta modu horretara integratzea oso polita izan da. Denek oso esku-zabal hartu naute.

La ermita pelikulan ere lanean ibili zinen azaroan. Zertan aritu zinen?

Produkzio taldean ibili nintzen. Produkzioa pelikularen azpiegiturak antolatu behar

dituen taldea da, eta ni lokalizazio taldean aritu nintzen. Lokalizazio taldeak grabazioak egin behar diren herriak edo espazioak aldeztu aurretik prestatzen ditu. Kasu honetan, Areson eta Leitzan aste batez grabatu zuten, eskakizun asko zeuden, eta nire lana grabazioak egiten hasi aurretik grabazioak antolatutako izatea zen.

Zer ikasi zenuen?

Gauza asko. Ikasketa haundia izan da jendearengana joatea eta beraiekin tratatzea, nola hitz egin jakitea, nola eskatu gauzak, nola eskertu, nola zaindu... Horrez gain, pelikula hau oso maila haundikoa da eta tarte libreetan muturra sartzen saiatzen nintzen teknikoki gauzak ikasteko.

Egiazko istorioek fikziozkoek baino gehiago erakartzen zaituzte edo alderantziz?

Edukiarekin lan egitea gustatzen zait, mezu bat duten istorioekin aritzea, eta egiazkoa den edo fikziozkoa den ez zait gehiegi inportatu. Gaur egun, entretenimenduak askotan deus kontatzen ez duten pelikuletara eramaten gaitu eta hori ez zait gehiegi gustatzen. Horregatik askotan banatzen ditut entretenimendua eta zerbait kontatzen duten istorioak.

Dokumentalak eta pelikulak bereizi behar dira?

Ez, niretzako denak berdina dira. Dokumentalak ere pelikulak dira. Dokumentalaren helburua zerbait kontatzea da eta hori fikzioaren bidez ere egin daiteke. Gai polemikoa da, dokumentalak eta pelikulak desberdintzen saiatzen dira, baina azkenean kontatzeko modua da diferentzia dena.

Zein egoeratan ikusten duzu Euskal Herriko dokumentalgintza?

Egia esan, hemengo ez dut oso ezaugarria, Katalunian ikasi dut eta hangoa gehiago ezagutzen dut. Baina Iruñean, adibidez, bada *Punto de vista* izeneko jaialdi bat, dokumentalen sortzaileentzako oso inportantea dena, eta horren

Manex Moreno Uharterekin labur-labur

• Zeure burua hitz gubxitan.

Etorkizunera gehiegi begiratu gabe, momentua bizitzea gustatzen zaiona. Etorkizunera begiratzerakoan, estutu egiten zara, eta gazteen errealitatea ikusita ez da ideia-rik hoberena. Datorren erronkari aurre egitea gustatzen zait. Herri mugimenduetan eta erronketan parte hartzea ere gustuko dut, ikasteko gogoz egoten naizelako, eta sozialki jendearekin egotea gustatzen zait. Kirolaria eta musikaria naiz eta orokorrean langileztatu dut neure burua. Baina sufritzailea ere banaiz. Lanen emaitzekin gehiago disfrutatzen ikasi nahi nuke.

• Ikus-entzunezko lan bat?

Asko... Umetan Harry Potterren saga eta gerora, Netflix garaia hasi zenean, *Breaking Bad*. Dagoen seriearik hobe-



rena da. Hiruzpalau aldiz ikusi dut.

• Zuzendari bat?

Paul Urkijo.

• Telebista edo zinema?

Zinema.

• Zein genero nahiago?

Dokumentalgintza.

• Musika talde bat?

Bring me the horizon.

• Kanta bat?

Berri Txarrak-en *Gelaneuria*.

• Zein talderen kontzertua ikusiko zenuke gustura?

Askorena, baina bat aukeratzekotan berriz ere Berri Txarrak taldearena.

• Kirol bat?

Bizitza osoan futbolekin jokatu dut eta futbola.

• Amets bat?

Latinoamerikan barna urte eta erdiko bidaia bat egitea gustatuko litzaidake.

bidez, dezente indartzen ari da hemengo dokumentalgintza. Ikus-entzunezko produktio etxeak ere dokumentalgileentzako eskaintzak egiten ari dira, eta goraka doala esatera ausartuko nintzateke. Gainera, gero eta gehiago kontsumituko dugun zerbait izanen dela uste dut.

Zein dira dokumental on bat egiteko funtsezko osagaiak?

Hasteko, oso inportantea da kontatu nahi duzun gaian jantzia izatea. Helburua zerbait kontatzea edo mezu bat edukitzea baldin bada, ezin duzu edozein modutara esan. Horregatik, hasieratik ikerketa lan haundia egin behar da. Horrez gain, kalitatea ere garrantzitsua da, bai irudiarena

baita soinuarena ere, eta ikuspuntu bat edukitzea ere gustatzen zait. *Ertzak leuntzen* dokumentalaren ideiak ere aldatetako jasan ditut bere bilakaeran. Hasierako ideia zabaltzen joan da denboran eta horrek gaian gehiago sakontzea ahalbideratu digu.

Irudiak hainbesteko indarra duen gizarte honetan, gaur egun irudia da zure ustez istorioak kontatzeko manierarik indartsuena?

Nire ustez, ez. Soinuak ez badu ongi funtzionatzen irudiak indar asko galtzen du. Begira sartzen denak zirrara sorrazten du, oso bisuala da, baina soinuarekin ere oso efektu indartsuak lor daitezke. Elkarren osagarri dira. Horregatik esan dut biak kalitate

haundikoak izan behar dutela, bietako batek huts egiten badu ikusleak nabaritzen du. **Zein gai lantzea gustatuko litzazuke?**

Mundu honetan askotan eskaeraren arabera moldatu behar izaten da. Dena den, gai sozialak gustatzen zaizkit, errealitate bat erakusteko helburua dutenak. Interesa sortzen didan gaia izan behar du, bestela zaila da hainbeste orduz lan egitea.

Etorkizunera begira zein helburu dituzu?

Ez dut horretan gehiegi pentsatzen. Azken urtea nahiko gogorra izan da, lan asko egin dut eta ordu asko pasatu ditut ordenagailu aurrean. Oraingoz ez dut proiekturik esku artean eta orain lasai egoteko tarte bat hartu nahi nuke. Gero ikus-entzunezkoen munduan lantxoak bilatzen hasiko naiz. Dokumentalgintzako proiektuak izatea gustatuko litzaidake, baina datorrenari eutsiko diot.

«MEZUA DUTEN
ISTORIOEKIN LAN
EGITEA GUSTATZEN
ZAIT»

«SOINUA EZ BADA
ONA, IRUDIAK
INDAR ASKO
GALTZEN DU»

Mende laurden euskara pantailara eramaten

25 urte bete zituen urrian Xaloe Telebistak. Mende laurden bete badu ere, hasierako helburu bera mantentzen du: bertako informazioa euskaraz zabaltzea. Hasieran Baztango, Malerreka eta Bertizaranako albisteak jorratzen zituen, baina, azken urteetan Iruñerrira zabaldua da

A. LARRETxea

Europako dirulaguntza baten bidez. Arraroa badirudi ere horrelaxe sortu zen duela 25 urte Xaloe Telebista. Izan ere, mende laurden bete zuen iazko udazkenean Xaloak, urtebetetze borobila. Modu xumean ospatu dute urteurrena, hitzaldi sorta batean bilduz Xaloak egunerokoan dituen langai eta kezkak. Hasi z geroztik bide luzea egin du tokiko telebistak, luzea bezain «xumea» Joseba Igarabide telebistaren sortzaile eta zuzendariaren hitzetan.

«Europatik telebista bat sortzeko dirulaguntza deialdia egin zuten, eta urte bateko epea zehazten zuen dena egiteko. Guk aurrekontua aurkeztu genuen, eta hori gauzatzeko %33ko dirulaguntza eman ziguten», azaldu du Igarabidek. Xaloe Telebista, ordea, ez zen hutsetik sortu dirulaguntzaren deialdiaren berri jakin aitzinetik burutan zuen ideia baitzen eskualde mailako telebista bat sortzearena: «Ni orduan Xorroxinen ari nintzen lanean, eta banuen burutan telebista egitearena, hausnarketa hori eginga nuen nire baitan». Dirulaguntza, beraz, une horretan behar zuen «aitzakia» izan zen proiektua martxan paratzeko.

«Garai hartan beharrezkoa zen euskararen alde egitea», oroitu du. Baztango, Malerreka eta Bertizaranako egunerokoa jasoko zuen tokiko telebistan baten aldeko apustua egin zuten, eta oraindik ere horretan segitzen dute

lanean, azken urteetan emisioa eta hedapena Bidasotik harago, Iruñerrira ere zabaldua.

Hutsetik hasi beharra

Ekoizpenaz arduratuko zen langile bat kontratatatu, eta

horrelaxe hasi zen Xaloe Telebistaren ibilera. Kataluniako tokiko telebistak hartu zituzten bereziki erreferentzetzat, eta helburu zehatza eta argia ezarri zuten hasieratik: «bertatik bertara» lan egitea. Telebistan inoiz lan



Xaloe Telebistako langileetako batzuk. XALOA



Iñaki Alustiza 'Ur eta Lur' saioko gidaria, elkarrizketa batean. XALOA

**2014TIK AITZINERA
IRUÑERRIAN ERE
IKUSI DAITEKE
XALOA TELEBISTA**

**1997KO URRIAN
EGIN ZITUZTEN
TELEBISTAREN
LEHEN EMISIOAK**

egin gabeak izaki, gainera, dena berria zen, eta dena hasi behar izan zuten hutsetik eraikitzen. «Zein formarekin lan egin ere erabaki behar izan genuen, eta zalantza aunitz izan genituen. Azkenean, garai hartan Sony etxea lanean ari zen DV formatu berriarekin lan egiteko apustua egin genuen, eta azkenean ongi ateratu da, baina, zalantza handiak izan genituen». Gainera, telebistan, irratiarekin alderatuta, bapatekotasuna lantzea zaila dela azaldu du Igarabidek, eta berezitasun horri ere neurria ere hartu behar izan ziotela.

1997ko urrian egin zituzten lehen emisioak, astean behin hasieran. Ondotik, abenduan, emisioak astean bi aldiz eginen hasi ziren eta Eguberrien ondotik, 1998ko urtarrilean etengabeko jardunarekin hasi ziren. Hasieran, Baztango Udalak Elizondon utzitako eraikin batean hasi ziren, eta azken urteetan Oronozeko bulegoaz gain, Iruñean ere badute estudioa.

Garapen xumea

Geroztik, 25 urte daramatza telebistak lanean, baina, mende laurdenenean «garapen xumea» izan duela onartu du Igarabidek. «Beti diruak baldintzatuta ibili gara, eta dirulaguntza eskasak jaso izan ditugu». Horren gainetik, ordea, urte hauetan guztietan helburua «herritarrei zerbitzu bat eskaintzea» izan dela azaldu du.

Sorreran ziren hiru langileetatik, gaur egun modu finkoan 7-8 lagun ibiltzen dira egunerokoan lanean Xaloan, eta proiektu eta sortutako lanen arabera kopuru hori aldatu egiten da. Igarabideren hitzetan, gehienez 35 lagun ibili dira aldi berean lanean. Horretan eragin nabarmena du 2013an ordura arte Bidasoa errekaaren ardatza utzi, eta Iruñera zabalatzeko erabakiak. Izan ere,



Xaloea Telebistako mikrofonoa. XALOA



Xaloea Telebistako langileak Nafarroan Oinezen lanean. XALOA

2014tik aitzinera Iruñerrian ere ikusi daiteke Xaloea Telebista, eta eskualdeko berriz gain, zentralitatea hartuz joan da Iruñerria, eta duela urte batzuk baino gehiago lantzen dituzte Nafarroa osoko gaiak gaur egun.

2013an Nafarroako Gobernuak LTD kanalen esleipena egin zuen, eta telebista Iruñerria zabaltzean bertze aukerarik ez zegoela azaldu du Igarabidek: «Lizentzia lortzeko zegoen aukera bakarrazen, eta horrek behartu gintuen Iruñerrian zerbitzua ere ematera». 2014an ekin zioten horri, eta onartu du horren ondorioz eskualdean ez dutela «nahi adina» egiten jasotzen dituzten dirulaguntzarik gehienak Iruñerriko lizentziarako laguntzak direlako.

Gaur egun, beraiek ekoizten dituzten saioez gain, tokiko bertze hainbat telebistarekin duten hitzarmenari esker, bertze eskualdeetako saioak ere eskaintzen dituzte. Beren magazin eta saioez gain, Iruñerriatik, Baztandik, Bertizaranatik eta Malerrekatik kanpoko saioak ikusteko aukera dute ikusleek. Gainera, beren eduki dena sareratzen dute, eta horiek berriz ikusteko aukera izaten da *xaloea-*

telebista.eus atari digitalean, eta baita albisteak irakurtzeko ere.

25. urtebetetzea ospatzeko ekitaldiak

Mende erdi egunero betetzen ez denez, ospakizun berezia egin nahi izan dute, eta horretarako hitzaldi sorta bat egin zuten udazkenean Iruñean. Nafarroako basoak, nekazaritzaren egoera Nafarroan, energia berriztagarriak eta klima, gazteak eta sare sozialak, Iruñerriko musikaren nondik norakoak, euskal komunikabideen inguruko mahai ingurua... Hainbat gai jorratu zituzten horietan guztietan, eta egindakoaren «balorazio positiboa» egin dute: «Esperientzia polita izan da. Iruñean hitzaldi aunitz gazteleraz izaten dira, eta guk apustua egin dugu denak euskaraz izateko».

Hain gustura gelditu dira egindakoarekin, heldu den urtean antzeko ziklo bat egi-

25. URTEURRENA OSPATZEKO HITZALDI ZIKLO BAT EGIN ZUTEN

tekotan direla. «Argi dugu aurten errepikatuko dugula, eta asmoa da leku desberdinetan egitea eta bertze gai batzuen inguruan», kontatu du. Hitzaldi horiez gain, bertze ekintza batzuk ere egin dituzte urteurrena ospatzeko, tartean Sudurgorri saioaren lau atal Iruñeko Kondestablen grabatu zituzten, grabazioa estudiotik karrikara eramanda.

Helburua: «irautea»

Orain arte egindako aztertua, begirada etorkizunean paratua dute Xaloan eta, argi du zuzendariak zein den helburua «irautea, edo hobeki erranda bizirautea». Ahalik eta saiorik gehien ekoitzi nahi dituzte, hori baita euskararen alde egin dezaketen ekarpena. Ekoizpenaz, harago, ordea, horiek ikusteko moduak kezkatzen du Igarabide.

Azken aldian telebista ikusteko sortutako plataformek kontsumo eredua aldatu du-

telakoan dago, eta tokiko telebistak eredu horretatik kanpo gelditzen direla. «Garai batean antena bidez igorrita telebistan ikusten zuen jendeak, baina, gaur egun plataformen bidez gehiago ikusten da, eta tokiko telebistak hortik kanpo gaude», azaldu du. Horregatik, helburua kalitatezko produktuak sortzea dela nabarmendu du, nahiz eta argi utzi duen «zaila dela telebista bat izatea».

Diru iturriak bilatzea eta lortzea da egungo Xaloaren zailtasunetako bat bere hitzetan. Gaur egun finantzaketa nagusia dirulaguntzen bidez izaten dutela azaldu du, eta proiektuaren arabera aldatzen direla horiek. Gainerako diru iturria aldiz, dirulaguntzekin alderatuta nabarmen txikiagoa, publizitatearen bidez jasotzen dute. Horiek lortzeko dauden zailtasunak nabarmendu ditu.

Guziaren gainetik, ordea, 25 urtez egindako bidearen balorazioa positiboa da: «Xaloea bizirik dago, irauten du, eta egindako bidea positiboa da. Euskararen tresna izaten jarraitu nahi genuke. Eskerrak eman nahi dizkiegu ikus entzuleei, eta baita laguntzen diguten elkarte eta erakundeei ere».

AURTEN ERE HITZALDI ZIKLOA EGITEKO ASMOTAN DIRA

Saihesbidea egingen dute Matzada eta Eztegara artean

875.000 euro hartuko ditu Udalak lan horiek egiteko, eta bertze 100.000 lanen bigarren fasearen proiektua idazteko

A.LARRETXE

Azken aldizkarian aipatu genuen bezala, Eztegara eta Matzada lotuko dituen zubia eraikitzeke 875.000 euro hartuko ditu Udalak. EH Bilduk Espainiako Kongresuan duen lan taldeak lortu du diru partida hori, aurrekontu zuzen-keta baten bitartez. Berako Udalaren aspaldiko asmoe-tako bat zen proiektua gau-zatzea, Altzate karrika eta plazatik trafikoa desbidera-tzeko. «Iaz proiektua osatu genuen, baina, obraren aurrekontu altuak hagitz zaila egiten zuen udal aurrekon-tuarekin bere gain hartzea», nabarmendu du Aitor Elex-puru alkateak.

Aurten hasiko diren lanek, Eztegara pasealekua eta Matzada karrika lotuko dituzte. Eztegara eta Kanttonberri

arteko biribilgunean hasita, bide berri bat eraikiko dute. Bide horrek, Labiaga Ikastolaren parean, ezkerreko norantza hartuko du, eta Sastra-ko erreka gainetik zubi batekin lotuko du Matzada.

Bide berriak 6,6 metroko zabalera izanen du zirkula-zioaren bi noranzkoetarako, eta 1,8 metroko zabalerako espaloi bat ere izanen du. Horrekin batera, Kaxernako bidearekiko lotura ere egoki-tuko dute.

Zubia eraikitzeke, gaur egun Labiaga ikastolaren parean

HELBURUA ALTZATE KARRIKAKO TRAFIKOA ARINTZEA DA

dauden aparkatzeko plazak galdu egingen dira, baina, zu-biaren bertze aldean aparka-lekua egiteko proiektua egin dute. Horrek, galduko lirite-keenak baino plaza gehiago sortuko lituzke. Gainera, lo-tura berriak «nabarmen» hur-bilduko ditu Matzadako egun-go aparkalekuak Toki Onako gunera eta Kanttonberriko dendetara. Udalaren hitze-tan lanek «argi eta garbi erraz-tuko dute gaur egun gutxiegi erabiltzen den aparkaleku berri horretarako sarbidea».

Saihesbidearen bigarren fasea

875.000 euroko aurrekontua ezarri dute lanak egiteko, eta bertze 100.000 euro saihesbi-dearen hurrengo bi faseen proiektua lantzen hasteko: Illekuetatik Angulerorainoko zatia Lizuniagako saihesbide gisa, eta Zelaia etxetik Itzea auzorainokoa, kasu berezietan Altzateko plazatik pasatzea saihesteko. Proiektuak egin ondotik, baloratu beharko dute lan horiek eremu horien urbanizazioarekin batera gau-zatuko diren, edo kasuren batean, exekuzio hori udal-ba-liabideekin edo udalaz gain-diko finantzaketarekin aurre-ratu daitekeen.

Gure Txokoak ez du zuzendaritza berritzea lortu

Abenduaren 17an egin zuen Gure Txokoa Elkarteak zuzen-daritza berritzeko bigarren bilera. Azaroan egindako lehen bileran ez zen talderik aurkez-tu, eta hilabeteko epea ezarri zuten berriz biltzeko. Aben-duko bileran ere ez zen talde-rik aurkeztu eta azken zuzen-daritza taldeak segituko du interesa duen talde berri bat aurkeztu arte. Talderik ez, baina, norbanako batek intere-sa agertu zuen zuzendaritza taldean sartzeko, eta beraz, laguntzaile gisa ariko da lan martxa ikasten.

Azkena II. Ziklokros txapelketa urtarilaren 22an

Iaz berreskuratu zuten Azke-na ziklokross txirrindularitza proba. Hilaren 22an, igandean egingen dute. 09:45ean hasita, bortz kategoriatako txirrindu-lariak lehiatuko dira. Berako Udalak antolatuko du, Gure Txo-koa eta Iruña Kirolak elkarte-entz laguntzarekin.

Alberto RETEGI
abokatua
948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

Jaukena
Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com
Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak
Eguzki-panelen instalazioa
eta dirulaguntzen gestioa

Guillermo LARRAÑAGA doktorea
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuarekin
- Tratamendu estetikoak, armarria eta malformazioak
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa-Ekointerbenziorismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak

Centro Médico Bera
San Esteban 17, Bera
Telefona: 610 549 507

KATEA BIKE
Bizikleten salmenta eta konponketa.

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

SCOTT PINARELLO MERIDA
BERGAMONT BH COLNER LOOK

Mendiaren Eguna ospatuko dute urtarrilaren 14an

Goizean eskalada tailerra egingen dute, eta arratsaldean lasterketa, mendi irteera eta dokumentalaren emanaldia

A.LARRETXE

Mendiaren Eguna antolatu dute Agerra Mendi Taldeak, Manttale Mendi Lasterketa Taldeak eta Artxila Eskalada Taldeak urtarrilaren 14an hamaseigarrenez. Egun osorako programazioa antolatu dute.

Goizean, Artxila Eskalada Taldeak eskalada tailerra eskainiko du 09:45ean hasi eta 12:30ak arte beren lokalean. Arratsaldean, aldiz, kronoi-goera egingen dute Santa Barbarako kaskora. 14:15 eta 15:00ak bitartean egin beharko da izen ematea Ricardo Baroja eskolako aterpean. 15:00etan, oinezkoentzako ibilaldi gidatua hasiko da, eta 15 minutu berandua go, 15:15ean Manttaleko Atletismo eskolako ikasleen txangoa. Ondotik, 15:30ean hasiko da lasterketa. Bikoteka



Lasterkariak, iaz. UTZITAKOA

ariko dira lehiakideak, erlojuaren kontra. Eguna borbiltzeko 18:00etan merienda eta oparien zozketa izanen dute, eta 19:30ean *Más allá del Kumbhakarna* dokumentalaren emanaldia Kultur Etxean. Dokumentalerako sarrerak aitzinetik ere erosi daitezke Agerrako Pikabea harategian.

Lasterketako izen emateak www.manttale.com helbidean ere egiten ahalko dira.



TTIPI-TTAPA

Ekitaldiz beteriko Eguberriak izan dira

Abenduaren 24an Olentzero eta Mari Domingi etorri ziren haurrengana, eta ondotik, Gure Txokoak antolatutako olentzeroan jende aunitz bildu zen. 31n glin-glan eskatuz, herrian zein baserrietan, koplak eta *Diostesalve* kantatuz bukatu zuten urtea.

ANTZUZELAI S.L.

BERA - T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Txepetxa

ALBAITARITZA KONTULTA
CONSULTORIO VETERINARIO

Raquel eta Adriana
zuek laguntzeko gogoz!

- ALBAITARITZA ZERBITZUAK:
txertoak, desparasitazioak, kontsultak, kirurgia txikia, ekografia eta analisia
- ILEAPAINDEGI ZERBITZUA
- DENDA:
elikadura eta maskotentzako osagarriak

948 631 362 | 688 723 460 | Bera, Legia karrika 21

Manterola
Tekniko instalatzailea

ITURGINTZA - GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa

629 449 602

Astulshenetik
ortzirakera:
07:15etik
aitzinerara

LABE ZAR

Larunbata
eta igandorak:
08:00etatik
aitzinerara

948 631 076 • BERA

Errekaondoan birgaitze energetikorako prest

Abenduaren 20an sinatu zuen hitzarmena alkateak Madrilen Espainiako Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda ministroarekin

AITOR AROTZENA

Next Generation funtsen bidez, egoera okerrean dauden etxebizitzaren birgaitze energetikoa abiatuko du. Europar Batasuneko dirulaguntza hauei esker Errekaondoan eraikineko 44 etxebizitzek laguntza zuzenak hartuko dituzte etxeak birgaitzeko. Ladis Satrustegi alkateak, Raquel Sanchez Espainiako Gobernuako Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda ministroarekin; David Lucas Parrón, Hiri Agendaren eta Etxebizitzaren Idazkari Nagusiarekin eta Jose Maria Aierdi, Nafarroako Gobernuako bigarren lehendakariordea eta Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariarekin sinatu zuen akordioa Madrilen abenduaren 20an.

Lesakako etxebizitzaren egoera aztertze ikerketa bat egin zuen udalak 2021ean, etxebizitzaren egoera zertan den eta herritarren beharrak zeintzuk diren aztertze. Azterketa horren ondorioz, Lesakan 26 atarik eta 243 etxebizitzek osatzen dituzten zor-

tzi eremu identifikatu zituzten zaurgarritzat, energetikoki hagitz eraginkorrak ez direlako.

Azaroaren 21ean birgaitze energetikorako behar gehiena duten eraikin horietako bizilagunei deialdi bat egin zieten Nasuvinsarekin batera, horretarako zeuden dirulaguntzen berri emateko. Errekaondoan eremuko bizilagunek interes handia adierazi zuten, birgaitze energetikorako obra egitea adostuz. 44 etxebizitza dira guztira eta horietatik 22k egingen dute birgaitzea.

Auzo-programa laguntzaren barrenean, Espainiako Gobernuako Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak 352.940 euroko dirulaguntza emanen du; Nafarroako Gobernuak 165.000 euroko dirulaguntza emanen du eta bizilagunek 402.241 euro paratu beharko dituzte.

Herritarrek Nasuvinsako teknikari bat ere izanen dute beraien tramite guztiak egiten laguntzeko, baita obra osoaren aholkularitza lanak egiteko ere, dirulaguntza kobratu arte.



AITOR AROTZENA

Beti Gazteko ipuin lehiaketako saridunak

Beti Gazteren IX. ipuin lehiaketara aurkeztutako 102 lanen artean Kattalin Mindegia eta Hegoi Zelaieta, Ainhoa Goienetxe eta Xiana Azkarraga, Elaia Mindegia eta Eneritz Etxepare eta Ioritz Iriarte eta Eneko Urrosolo saritu dituzte. Peio Añorga ipuin kontalaria izan zen sari banaketan.



BETI GAZTE

Lesakako Bitxikeriak ezagutzen

Lesakako bitxikeriak lehiaketa antolatu du bigarren urtez Beti Gaztek. Hiru txandatan banatuta, herria gehiago ezagutzeko 24 galdera erantzun behar zuten parte-hartzaileek. Izaskun Igoa, Jagoba Otxoteko, Jose Luis Sunsundegi, Iker Altzugarai eta Milagros Etxepare suertatu dira garaile.

LINDDURRENBORDA SAGARDOTEGIA

Txotx denboraldiaren irekiera
urtarrilaren 13an.
Ortzegunetik igandera irekita,
eguerditik aitzinera.

Egin erreserba!!

NABAZ AUZOA LESAKA (NAFARROA) - TEL. 948 63 72 12

ANELAN
LAN BERTIKALAK

948 031 174
info@anelan.pro

Sokekin egindako lana, andamiorik gabe.
Egiten ditugun lanak:
Fabaden konponketak,
segurtasun-sistemen
instalazioak, teilatuen eta
azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.

LIDERA
HORIZ KLINIKAK - ESTUDIO DENTAL

Izurrumunbiko plaza. 9-10 • 31770 LESAKA (Na)
Tel. 722 662 478 | lidera@hortzklina.es @liderahortzklina

Bertsoa tresna didaktiko bihurtzeko

'Bertsolaritza Irain Eskolan' proiektua garatu dute, bertsolaritza eskolan hasten direnetik eskola uzten duten arte lantzeko. Proiektuaren helburua, bertsolaritza haurrengana hurbiltzea, eta haurrek kantatzeko ohitura berreskuratzea da

A.LARRETXEA

Bertsoa eta kantua egunero-koan presente izatea eta bertsoa erreminta didaktikoa bihurtzea. Horixe da *Bertsolaritza Irain Eskolan* proiektuaren helburua. Irailaz geroztik, bertsolaritza lantzeko modu berri bat baitute Irain eskola publikoan, 2 urtetan hasi eta 12 urtera bitarte landuko dute, zeharka lehen urteetan, eta 5. mailatik aitzinera zuzenean.

Gabezia baten ondorioz sortu dute proiektua, izan ere aspaldi nabaritu zuten haurrek kantatzeko ohitura galdua zutela. Hori berreskuratu nahi izan dute proiektuaren bidez, haurrek kantatzeko ohitura ttikitatit landu dezatela. Baina, ez hori bakarrik, LH 5. mailan bertsolaritza zuzenean lantzen hasten direnerako bertsoaren guttueneko ezagutza bat izatea ere bermatu nahi dute, ikasleek doinu batzuk ezagutzea.

Horretarako, bertsoa tresna didaktiko bihurtu dute. Errutinak eta arauak ikasteko tresna, baina baita ipuinak eta emozioak lantzeko ere. «Gelan ipuin bat lantzen denean, hori ahoz kontatu ondotik, bertsotan aditzen dugu», azaldu du Eneko Fernandez eskolako irakasle eta proiektuaren sustatzaileak. Hilabeteak ikasteko kanta egin dituzte, baina baita Lesakako txokoen berri ematen duten bertso sortak, eta igerilekura joaten direnerako arau multzoen koplak ere. Adibide bat paratu du Fernandezek: «Geografia lantzen ari ginen gelan, eta erakutsi nien Euskal Herriak zazpi probintzia dituela eta



Eneko Fernandez proiektuaren sustatzailea ipuinak eskuetan dituela. TTPI-TTAPA

eta zein diren horien hiriburuak. Errepasatzean, ordea, konturatu nintzen ez zutela batere barneratua. Orduan, koplak batzuk egin genituen elkarrekin hori ikasteko, eta horiek kantatuta ikasi zuten. Oraindik ere gogoan dituzte koplak».

Irainen garatu duten proiektua da, baina erro sakonagoak dituena. Azken urteetan, bertsolaritza ikasgelan lantzeko ikastaroak eman izan dizkie Fernandezek hainbat irakasleri. Hori, ordea, gelan gelditzen zela azaldu du, eta «burbuila» modukoak sortzen zirela. Horregatik erabaki dute proiektua eskola osoan garatzea.

Behin proiektua idatzita, egin beharreko lan garrantzitsua

materiala prestatzea izan da. Fernandezek azaldu duenez, material parrasta dago sortua Bertsozale Elkartearen *bertsoi-ikasgela.eus* atarian, eta hori antolatu dute lehenengo, eta ondotik, gabeziak atzeman dituzten lekuetan material berria sortu dute. Batez ere txikienentzako materiala sortu behar izan dutela azaldu du, eta pixkanaka ari direla bertso sortak sortzen, eta horiek musikatzin.

ESKOLAKO IKASLE GUZTIAK ELKARTZEN DITUEN PROIEKTUA DA

Hori dena antolatu egin dute, eta orain ikas mailak, eta arloka dute antolatuta, denak klik batera. «Hori eginda ematen zaion erabilpena da gakoa. Orain klik batera dago, eta irakasleek sarbide zuzena dute».

Bertso ipuina elkarrekin

Eskola osoa elkartzen duen proiektua da, eta horren adibide da ikasle denek parte hartu duten bertso ipuina. «Haur hezkuntzako ikasleek gustuko bi ipuin aukeratu dituzte, eta ondotik LH 5. eta 6. mailako ikasleek ipuin horiek bertso bilakatu eta grabatzen dituzte. Bertsoak eginda, 1. eta 2. mailako ikasleek marrazkiak egin dituzte eta 3. eta 4. mailakoek, irudiekin bideoa eta ipuinaren edizioa eta inprimaketa». Dagoeneko sei ipuin osatu dituzte, eta aurten bertze bi egitekoak dira. «Eskolako azokan saldu genituen, eta guraso batek baino gehiagok erran digu etxean erabiltzen dituela haurrei kantatzeko». Horrez gain, urtero bertze bi proiektu garatzeko konpromisoa ere hartu dute: 4. mailan Lesaka eta bertsolaritzarekin duen historiari buruzkoa bat, eta bertzea 6. mailan eskola uzten duten ikasleek beren despedida bertso bidez egitekoa.

Hurrengo helburua gizarteratzea da. Horretarako, Nafarroako Bertsozale Elkartek antolatuta irakasleentzako formakuntza egingen dute urtarilean Lekarozen eta Uhartin. Ikastaro horietan Irainen egindako proiektuaren nondik norakoak azalduko dituzte. Fernandezek nabarmendu duenez, helburua eskola sare bat lortzea da, materiala partekatze, eta denen artean elkar elikatze. Interesa erakutsi dute dagoeneko ikastetxe batzuk, eta horiekin elkarlanean aritzeko prest da Fernandez: «Ez nuke nahi hau alde batera utzita dagoen liburu bat bezalakoa izatea, baizik eta bizirik dagoen eta erabiltzen den tresna izatea».



Bajak eta erretiroak ez direla ordezkatzeko salatu dute alkateek. AITOR AROTZENA

Osasun zentroaren egoera «prekarioa» salatu dute

Ari beharko luketen zazpi mediku eta erditik hiru bakarrik ari dira urte hasiera honetan eta alkateek kezka agertu dute

TTIPI-TTAPA

Mediku falta dela eta, abenduaren 30ean Lesakako osasun zentroan bilera egin zuten osasun etxeko zuzendaritzak, Bortzirietako alkateek, Nafarroa iparraldeko zuzendariordeak eta Carlos Artundok, Osasun zuzendari nagusiak. Momentu honetan dauden bajak, lanpostu hutsak eta oporrak tartean, abenduan hainbat egunetan 7 mediku lanaldi osoz eta bertze bat lanaldi erdian aritu beharrean, hiru mediku bakarrik aritu dira goizez lanean. Bada, egoera horrek ez du hobera egin.

Urtarrilaren 2tik aitzinera, Bortzirietako medikuntzako aurrez aurreko kontsultak (helduenak eta haurrenak) Lesakan egiten ari dira, eta gainera mediku batek etxeko bisitak eta zaharren egoitzak artatzen ditu. Herrietako kontsultategi guztiak irekita daude erizainen plantilla osoare-

«OSASUN ZENTROA ZABALTZEAK BERTZE ZERBITZUAK EMATEA EKARRIKO LUKE»

kin, eta erizainak zuzenean komunikatzeko dira medikuekin. Administrazioek egun hauek Lesakan arreta behar duten paziente guztiak deitzen dituzte, eta egunean bertan kontsultara joateko, **08:00etatik 10:30era hartzen dituzte deiak**, eta ordu horren ondoren, bakarrik larrialdiko deiak hartzen dituzte.

Urtarrilaren 9tik aitzinera, behar diren errefortzuak ailegatzea, eta, orduan, lehengo egoerara itzultzea espero dute, eta mediku bakoitzak bere herriko kontsulta pasatzea, Lesaka estali behar denean izan ezik (talde osoaren artean banatzen baita).

Alkateen kezka

Joan den urtean lanean ari zen pediatra bakarrik erretiroa hartu eta egun berean dimisioa aurkeztu zuen Ruth Gonzalez Santo Tomas Lesakako osasun zentroko zuzendariak, «egoerarekin etsita». Hau ikusita, Bortzirietako alkateek agerraldia egin zuten, osasun zentroaren «egoera prekarioa» salatzeko. Bortzirietako alkateen erranetan, «profesionalak falta ditugu, bajak eta erretiroagatik lanpostu hutsak ez direlako betetzen, edota ordezkapenen falta kronikoa dugulako eta okerrean: ez dago egoera hobetzeko planik, ez dago epe labur, ertain eta luzearako ez ideiarik, ez helbururik» eta behar diren medioak jartzea eskatu dute.

Bor-Bor mugimenduaren bilera irekiak egunotan

TTIPI-TTAPA

Apirileko bigarren hamabortzaldirako egitarau zabal bat antolatu nahi du Bor-bor Euskaltzaleen Mugimenduak, euskararen inguruko ekintzekin: Bor-borraldia. Egitarau hori prestatzeko, beharrezkoa izanen dute borts herrietako euskaltzaleen laguntza, eta, urtarileko lehenbiziko hamabortzaldian zenbait bilera prestatu dituzte. Hilaren 2an eta 3an egin zituzten lehenak Etxalarren eta Beran eta **hilarren 12an** Arantzan (ortzegunetan 18:00etan Baskulan), **13an** Igantzin (ortziralean 16:30ean udaletxean) eta **14an** Lesakan (larunbatean 19:00etan kultur etxean) egingen dituzte.



UTZITAKO ARGAZKIA

Tantirumairu dantza taldearen saskia emana

Eguberrietako saskia zozketatu du Lesakako Tantirumairu euskal folklore taldeak. 5.490 zenbakia izan da saritua, Eguberrietako loteriaren azken lau zenbakiak dituen, hain zuzen. Bakartxo Etxeberria izan da sariduna.



JOSENEAK BAZTAN OIL ZERBITZUAREKIN JARRAITZEN DU

Erregai Banaketa Zerbitzu Berria zure etxera

INFORMA ZAITEZ!

Ordoki Industrialdea, 47. partzela
31713 Arizkun (Nafarroa)

WhatsApp 625 324 423
Email: energiak@josenea.es

www.josenea.es



Olentzerorekin ibili ziren gazteak. JOSEBA OLAGARAI



Bingoko irabazleak. AXUN MAIA

Giro onean eta animazioarekin joan dira Eguberriak

Gabon gauean Olentzero eta Mari Domingirekin itzulia, urtezazar eguneko Ela-Ela

IRUNE ELIZAGOIEN

Ezohiko eguraldi ederrarekin, giro onean joan dira Eguberriak. Gabon gauean, hiru Olentzeroren irudiekin eta trikitilari eta txistulariek lagunduta, dozenaka lagunek herriari itzulia eman zioten. Olentzero eta Mari Domingi ere etorri ziren asto eta guzti eta frontoian goxokiak banatu zituzten.

Urtezahar egunean, berriz, haur eta gazteak ela-ela eskean ibili ziren herrian eta baserrietan. Ez dira horrekin bukatu Eguberrietako kontuak. Urtea ongi hasteko, bingoa izan zen



Juel eta Erik Igoa anaiak. M. ANSALAS

Herriko Ostatuan eta jende andana elkartu zen. Errege



Haurrak Ela-Ela eskean. AXUN ELIZALDE

Eguneko txokolate-jatea antolatu zuen Larraburua Elkar-teak. Manu Goñi ere bertan izan zen haurrentzako jokoak eta antzerkia egiten.

Pilota kontuak

Bortzirietako txapelketan berriz, Etxalarko Juel eta Erik Igoak hartu dute parte. Juel Igoa azpitxapeldun gelditu da ttikien mailan eta Erik Igoa txapeldun kimuak kategorian.

37 pilotari aritu dira Eguberrietako bosgarren pilota txapelketan

Abenduaren 28an eta 29an Eguberrietako V. Pilota txapelketa jokatu zen. Guztira 37 pilotari aritu ziren, bortz mailatan banatuta. Ttikien mailan Beñat Ansalas eta He-goï Otazo izan ziren txapeldun, Arane Iriarte eta Juel Igoari 18-11 irabazita. Benjamin-alebin mailan, Kaïet Sanzberro eta Noa Otazo izan ziren irabazleak, Enara Mendiburu eta Aiert Iriarteri 22-18 garaituta. Infantiletan, Erik Igoa eta Irati Mendiburuk 22-20 irabazi zieten Amets Sanzberro eta UrAtondori. Kadete-jubenilen mailan Aitor Azkarragak 22-21 irabazi zion Lander Lasagari. Handienen mailan Xabier Telletxeak 22-9 irabazi zion Xuban Fernandez lesakarrari.

Sute Elkartearen urteko batzarra urtarilaren 28an

Sute elkartearen urteko batzar orokorra egingen dute Kultur Etxean urtarilaren 28an, 10:00etan. Suak itzaltzeko pala bereziak Zamudieneko bordan, Iturraldeko bordan, Arrineko bordan, Tolareko bordan, Goienetxegaraian eta Maisterrereneko bordan daude.

KAGU
LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEROKO GUREA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- LIBURU EGINAKO INPRIMAKETAK
- ESKALERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaillea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Eramateko janaria
astelehenetik ortziralerara
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info



Biltokiko taldea olentzero lehiaketan. ANA ETA ITZIAR

Olentzero lehiaketa egin dute aurten ere Eguberrietan

Biltoki Ttiki suertatu zen garaile eta urtezahar egunean ere gazteak ibili ziren 'santaketan' eskean

ANA ETA ITZIAR

Abenduaren 24an egun honi dagozkion ekintzak ere giro ederrean burutu zituzten; goizean goiz bortz taldetan banaturik herriko haur eta gazteak aritu ziren etxez-etxe eskean hainbat kantu eskainiz.

Arratsaldean, berriz, Olentzeroekin herri-buelta eta ederki berendu eta gero, txapelketari eman zitzaion hasiera. Biltoki Ttikik eraman zuen lehenbiziko saria. Aipatzekoa talde guztiak egindako lan eta kantu bikainak!

Urtezahar egunean, berriz, Biltoki Ttikiko gazteen txanda

izan zen etxez etxe *santaketan* eskean ibiltzeko. Urteari akabaila emateko giro ederra paratu zuten etxeetan bertso kantuan.

Errege eguneko bezperan, Kabalgata egin zen. Azkeneko bi urtetan, egoerak hala eskatuta, Erregeek etxez-etxe banatu zituzten opariak. Aurten, berriz, betiko moduan ospatuta, Erregeak elizara hurbildu eta bertan egin dute bisita eta oparien banaketa.

Eskolan

Urtero, abenduko oporrak hasi baino lehen eta eskolako azken



Teodoro Sein saskiarekin.



Gazteak santaketan eskean.

eguna aprobetxatuz, Olentzero agertu zen eskolan haurrei saludatu eta opari batzuk ekartzera. Egun berexi hau aprobetxatuz, beti egin ohi den eskolako haurrek saldu-tako errifin zozketa ere egin zuten abenduaren 22an.

Hona hemen saridunen zerrenda:

- Lehenbiziko saria: 707 zenbakia (Izaskun Tapiarentzat)
- 2. saria: 1242 zenbakia (Felix Tabernarentzat)
- 3. saria: 1790 (Nerea Goñirentzat)

Baratzondoko saskia Teodoro Seineri egokitu zaio.

Biltokiko mus eta partxis txapelketak hasiko dira

Igantzi Biltokik antolatuta, ilbeltzak 13-14tik aitzinera 2023 denboraldiko mus eta partxis txapelketari ekinen zaie. Museko jardunaldiak ortziraletan jokatuko dira, 21:30ean hasita. Partxisekoak, berriz, larunbat edo igandean jokatu da 17:00etan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bortzirietan txapeldun eta txapeldunorde

Abenduaren 31n jokatu ziren Beran Bortzirietako Banakako Pilota Txapelketako finalak. Eneko Almandoz Urbistondo eta Ainara Hita Aranguren txapeldun izan ziren, eta Aratz Laka Mitxelena txapeldunorde.

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA
 · PROIEKTU ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450

· BOLETIN INDUSTRIA
 · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Legia, 23 - BERA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com

creaciones metálicas
Igantz (Navarra)
948 63 74 11

Berriazun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es

Inauteriak otsailaren 2tik 4ra izanen dira

Mozorro zuri talde ederra bildu da eta antolaketa lanetan ari dira buru-belarri

NEREA ALZURI

Urte berria abiatu berri dugun honetan, inauteriak izanen dira hurrengo asteotan herri-tarren ahotan ibiliko direnak.

Mozorro zuri talde ederra bildu da aurten ere antolaketan lanak aitzinera ateratzeko. Iragarri dutenez, otsailaren

2an, 3an eta 4an izanen dira eta egitaraua lotzen ari dira herriko gazteak. Beraz, mozo-rraldirako datak buruan hartu eta 2020ko inauteriak go-
goan, ilusioz eta umorez har ditzagun inauteriak. Hurren-
go aldizkarian xehetasunak emanen ditugu.



JOSE RAMON AMOROS

Urte akabailako ekitaldiak giro ederrean

Abenduaren 24an, Olentzero eta Mari Domingiri harrera ezin hobia egin zieten herritarrek eta abenduaren 31n, elkartasun zozketa egin zen. Bertako produktuen karretila Mari Karmen Mitxelenarentzat izan zen eta bildotsa Juanita Larralderentzat. Ilbeltzaren 5ean, berriz, errege kabalgata egin zen frontoian.

Izaro Goikoetxeak hartu du Rosa Mari Iribarrenen lekukoa kooperatiban

NEREA ALZURI

Bortzak Bat Kooperatiban 30 urtez lanean aritu ondotik, Rosa Mari Iribarrenek erretiroa hartu du.

Lanpostua betetzeko bi lagun eman zuten izena eta zuzendaritza batzordeak lanposturako ondoko irizpideak hartu ditu kontuan: euskaraz solastatzea; bazkidea edo bazkidearen familiakoa izatea; gida baimena izatea; ordenagailuan aritzeko guttueneko ezagutza izatea; banatzaileak behar diren momentuan hartzeko langilearen hurbiltasuna eta prestuta-

suna; eta orokorrean, lanpostuan bete beharreko lanak egiteko gaitasuna izatea. Irizpide horiek kontuan hartuz, abenduaren 14an kooperatibako juntak egindako bileran, aho batez lanpostua Usaineko bordako Izaro Goikoetxeari ematea erabaki zuen. Hemendik aitzinera betiko martxan segituko du kooperatibak.

Lerro hauen bitartez, kooperatibako bazkideek Rosa Mari urte hauetan egindako lana eskertu nahi izan dute. Biba Rosa Mari! Orain gozatu erretiroaz!



UTZITAKO ARGAKZIA

Aranztarrak futbito txapelketan

Sei aranztarrek parte hartu zuten Doneztebeko futbito txapelketan: Iosu Larretxea, Jon Zabala, Borja Iturria, Jon Jorajuria, Ibai Igarabide eta Markel Jorajuria. Burlatako bortz lagunekin osatu zuten Arantza izeneko taldea. Txapelketa ona egin zuten eta hamasei talderen artean, hiru garren gelditu ziren. Zorionak!

ola
SAGARDOTEGIA

www.olasagardotegia.eus
bisitatu gure online denda!

102 Meaka auzoa
20304 IRUN • T.943 623 130

- Bertako sagarrekin egindako sagardoa
- Euskal Sagardoa J.D. eta sagardo ekologikoa
- Klimatizatua
- Sagardo denboraldia maizta bukaera arte
- Sagardotegi menua txotxarekin
- Asteartetik larunbatera afariak, Ostiralean eta larunbatean bazkariak ere.

SAGARDO BERRIAREN GARAIA

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65

Ainhua Altzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean • Herentziak
Alokairuak • Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com



Proba nagusiaren aitzinetik hainbat haur atera ziren lasterka. MAITE IBARRA

San Silvestre lasterketa lehen aldiz egin dute

Hamalau urtetik goitiko gizonezkoen artean Eneit Bertiz nagusitu da eta emakumeen artean Leire Sanzberro

MAIDER PETRIRENA

Aurtengoan Sunbillan ere San Silvestre lasterketa egin dute lehen aldiz urtezahar arratsean eta izugarritzko arrakasta izan du. Argazkietan ikus daitekeen bezalaxe lehenik haurren talde eder batek parte hartu zuen, Txangenea etxetik Ulibeltzak elkarterainoko ibilbidea eginez. Ondotik, 14 urtetik goitiko txanda izan zen. Kuadrilla ederrak parte hartu zuen eta gizonezkoetan Eneit Bertiz Apezetxea izan zen bizkorrena, Julen Ibarra Irazoki eta Ekaitz Bertiz Apezetxearen aitzinetik. Nesken sailkapena, berriz, ondorengoa izan zen: lehenbiziko Leire Sanzberro Oharriz, bigarren Josune Agirre Maritorena eta hirugarren Aitana Retegi Soroazabal. Boletoak ere salgai izan ziren eta irabazleak ondorengoak izan ziren: 1. Josune Agirre Maritorena, 2. Itsaso Arrieta Agirre eta 3. Mari Paz Gelbentzu Almandoz. DJ J&K giro ederra paratu zuen. Parte-hartzaileak eta antolakuntza lanetan ibili diren guztiak zoriondu behar dira, guztiek lan ederra egin zuten eta.



Emakumeen podiuma. MAIDER PETRIRENA




Mutilen podiuma. AMAIA APEZETXEA



Lasterkari denak. IKER URROZ

Nahia Bertiz txapeldun Bortzirietan

Urtea ezin hobeki akitu zuen Nahia Bertiz Babaze herritarrek. Urtezahar goizean, Berako Eztegara pilotalekuan Bortzirietako banakako finalak jokatu ziren eta Nahiak txapela herrira ekartzea lortu zuen.



LOREA BABAZE



ENEKO HERRERA

Eguberri Eguna kantuan

Kuadrilla ederra elkartu zen abenduaren 25ean, Eguberri Egunean, kantuan ibiltzeko. Mitxelena anaiak akordeoilari lagun, bi taldetan banatu eta arratsaldean herrian kantatu zuten. Ulibeltzak elkartean afaldu eta, berriz ere bi taldetan banatuak, baserrietara joan ziren.



ANDER MARIEZKURRENA

Urtea kantuan eta eskean hasia

Urtea ezin hobe hasi dute herriko haur eta gaztetxoek. Herrian nahiz baserrietan eskean kantuan ibili dira, taldetan banatuak eta harrera ezin hobea eskaini diete. Kuadrilla ederrak elkartu dira, urte berriari kantuan hasiera ederra emateko. Urte berri on denei.

Aparkatzeko arauak errespetatzeko eskatu du udalak

Eguberrietan auto aunitz espaloi gaineta edo ezarritako denboratik kanpo aparkatu dituztela salatu du udalak

OIER ZULAIKA

Eguberriak pasata, udalak bere poza eta kezka adierazi ditu. Poza Eguberri giroan jendea ibili delako herrian eta bertako komertzioetan eta ostatuetan. Jende aunitzek hartu du parte Olentzeroan zein urtatxetan, eta baita mendian, eta korrika edo areto futbola praktikatzen, zein kirolariak harmailetatik animatzen. Horrekin batera, kezka adierazi du hainbat ibilgailu espaloi gainean aparkatu dituztelako eta denbora mugatutako tokietan denbora muga gainditu dutelako.

Udalak herritarrei eta inguruko herrietatik etorritako bisitariei gogorazi nahi die erdigunean ordu eta erdiz aparkatzeko aukera dagoela, eta lasaiago ibili nahi duenak badituela bertzelako aparkatzeko tokiak.

«Espero dugu denok bertze herri eta hiri guztietan bezala Donezteben ere ibilgailuak behar de tokitan uztea. Karrika denona da eta denontzako da. Elkarbizitza goxoa izan dezagun eta zaindu eta errespetatu ditzagun herritarrak, bideak eta espaloiak».

'Administrazioa zugandik hurbil' ikastaroa egingen dute urtarrilaren 12an

OIER ZULAIKA

Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkariak antolatuta, hilaren 12an, ortzeguna, *Administrazioa zugandik hurbil* ikastaroa egingen dute 12:30ean Herriko Etxeko osoko bilkuren aretoan. Bertaraten direnek izapide eta

gestio ohikoenak egiteko aholkuak jasoko dituzte, eta baita administrazio publikoarekin elektronikoki harremanak izateko balio duen Cl@ve sistemaren kode iraunkorra ere. Horretarako, NANA eraman beharko dute interesatuek. Ikastaroa dohainik izanen da.



ERREKA KIROL ELKARTEA

200 lasterkaritik goiti San Silvestren

200 korrikalari baino gehiagok parte hartu zuten San Silvestre lasterketan. Gizonezkoenetan Gwendal Larque izan zen bizkorrena, Joseba Elizagoien bigarren eta Santi San Miguel hirugarren. Emakumeetan, Vanesa Pacha nagusitu zen, Saioa San Miguelen eta Amaia Jorajuriaren aitzinetik.



OIER ZULAIKA

Olentzeroren eta Mari Domingiren bisita

Olentzeroren eta Mari Domingiren bisita izan zuten herriko haurrek abenduaren 24an. Kalejira egin zuten herrian txistulariek lagunduta eta jende aunitz bildu zen. Urtea hasteko, aldiz, urtatxak biltzen ibili ziren haurrak herriko karriketan.



OIER ZULAIKA

Mourges etorbideko parkea berritu dute

Abenduaz geroztik haurrek Mourges etorbidean dagoen parke eraberrituan jostatzeko aukera dute. Udazkenean itxi zuten berritzeko lanak egiteko, eta lan horiek bukatuta, eta inguruan belarra landatu ondotik, dagoeneko irekia dago.



Olentzerori harrera egin zioten neska-mutikoek. ARKAITZ MINDEGIA

Urte bukaerako eta hasierako ospakizunak bikain

Olentzerori ongiatorria egiteaz gain, urteberri egunean musika eta errege bezperan joare doinuak aditu ziren

ARKAITZ MINDEGIA

Olentzeroren etorrera, urte bukaerari agurra, berriaren hasiera eta errege bezperako bestak giro ederrean joan dira. Olentzeroren etorrera baino lehen Aurtizko eta Iturengo karriketan gaztetxoak ibili ziren eguberrietako abestiak kantatuz. Eguneko momenturik politena joaldunen laguntzarekin herrian sartzeko unea izaten da. Haurren ilusioa eta urduritasuna ikustekoak dira. Behin plazan, hurrek Olentzerorekin argazkia ateratzeaz gain, berarekin tarte-txo bat egoteko aukera izan

zuten, etxean utzitakoa ikusi baino lehen.

Urte zaharra hainbat modutan agurtu ondotik, urte berriaren hasieran txalaparta doinuak, triki, akordeoi, panderoarekin lagunduz, su artifizialak... aditu ziren.

Errege bezperan Zubietan, Aurtitzen eta Iturenen joare soinuak nagusitu ziren. Arratsaldean gaztetxoak ibili ziren joareekin. Gauean, kuadrilla ederrak bildu ziren afarietan. Ordu ttikietan, berriz, joaldun kuadrilla animatu zen joareak paratuta. Guttiago falta baita inauterietarako.



UTZITAKO ARGAZKIA

Joaldunak han eta hemen

Joaldunak hainbat herrietan aritu dira beraien joare soinuak zabaltzen Eguberrian. Iturengo joaldun helduak abenduaren 22an Arrasatera eta 23an Corellara joan ziren eta ttikienak, berriz, 23an Oreretara. Aurtizko joaldunak Elizondora joan ziren bitan, Olentzerorekin eta errege Kabalkadan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Anis Saint Germain Donezteben

Abenduaren 23tik 31ra jokatu zen zen Doneztebe Futbol taldeak antolaturiko X. Eguberrietako areto-futbol txapelketa. Hamasei talderen artean herriko gazteez osatutako Anis Saint Germain taldeak parte hartu zuen. Gustura aritu ziren, izerdia bota bidenabarrean.

Pulunpa eskolako hiruhilekoaren bukaeran sariak ere banatu dituzte

A. MINDEGIA

Abenduaren 23an Pulunpa eskolan besta nagusitu zen. Lehen hiruhilekoa akitzeko eguberrietako jaialdi bikaina antolatu zuten irakasle, ikasle eta guraso elkarteok. Haur Hezkuntzakoak izan ziren lehenak beraiek prestaturikoa

erakusten eta, haien ondotik, gelaz gela, seigarren maila bitarte artistaz inguraturik gaudela ohartu ginen. Denak ere bikain aritu ziren, kantuan, dantzan eta txirularekin ere Guraso elkarteak emanaldia akitzerako gosaria prest zuen jantokian. Akitzeko, ate-

ra zituen kamiseta eta egutegien banaketa egin ondotik, hauen boletoen zozketa egin zuten.

Sariak eta saridunak

Hauek dira saridunak:

1. Zarea, 0237 zenbakia, Izaskun Altxu
2. Zarea, 0486 zenbakia, Mertzxe Erasun
3. Aurtizko Ostatuan otordua, 0012 zenbakia, Gloria Arretxea

4. Kimetz Belardendako oparia, 0737 zenbakia, Mari Jose Otxandorena

5. Zarea, 0413, Teresa Mikeo

Guraso elkartetik eskerrak eman nahi dizkiete bai saskietarako eta baita gosarirako auzolanean ere parte hartu duten guraso guztiei. Gogorazi dute kamisetaren bigarren eskaria egin behar dutela eta interesatuek beraiekin harremanetan jartzeko.



Mari Domingi haurrek inguratua. UTZITAKO ARGAZKIA

Mari Domingik eta Olentzerok egin dute bere bisita Zubietara

Eguberrietako eta Errege bezperako ospakizunen ondotik, inauteriei begira daude dagoeneko herritarrak

FERMIN ETXEKOLONEA

Eguberrietako ospakizunak ongi joan dira aurrean. Olentzerok eta Mari Domingik egin zituzten beraien harat-honata, urte zaharra agurtu eta Errege bezperan joareak jantzi zituzten lehen aldiz, inauteriei begira. Goizean gaztetxoak ibili ziren etxetik etxera eta

ilunabarrean, helduek Doneztebeko kabalgotan ere parte hartu zuten. Gau partean, Ituren eta Aurtizko joaldunekin batera ibili ziren batera eta bestera. Orain, inauteriak begibistan direla, joareei ez ezik, moztaroei eta traste zaharrei ere hautsak kentzen ari dizkiete ganbaretan.

San Anton egunak ohiko egitaraua izanen du

Ilbeltzaren 17an, datorren asteartean izanen da San Anton eguna eta ohi bezala, goizez meza izanen dute baselizan eta ondotik hamaiketako eskainiko dute. Arratsaldean musika izanen da estalpean. Hau idazterakoan ordutegiak zehaztea falta da.

'Negu hurbilak' filmaren segidako grabazioak

Bere garaian *Negu hurbilak* filmarako irudiak herrian hartu zituzten Donostiako Maluta Films eta Kataluniako Cornelius Films elkarlanean ari dira berriz ere eta irudi gehiago hartzeko herriko txokoak begiratzen ari dira, filma horri gehitzeko asmoarekin.



TESTUA ETA ARGAZKIA: JAIONE ARIZTEGI

Olentzeroren ohiko bisita Urrozen

Urrozko haurrek pozik hartu dute Olentzeroren bisita Eguberri hauetan ere. Betiko legeari jarraituz, neska-mutikoak kantu eskean etxetik etxera ibili ondotik jaitsi zen Olentzero menditik. Hutsik egin gabe, ume guztientzat opariak ekarri zituen.



TESTUA ETA ARGAZKIA: NEREA MEOKI

Olentzero ttiki Legasan ere

Abenduaren 22an Legasako ikasleek tailerretan parte hartu zuten; karaokea, mahai jolasak eta eskulanak. Gero Axunek prestatutako txokolatea gosaldutako kalejira ibili ziren. Saskien irabazleak Maribi eta Haran izan ziren. Guraso elkarteak antolatutako bazkariarekin borobildu zuten eguna.

ORBELA
SENDORRUA
BEINTZAKO OSTATUA
Idola - Mikel
Tel. 948 450 014 - BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

CASA PUNTOS
ARMERIA Y TALLER
SINCE 1885
ARMA-DENDA ETA TIRO GALERIA
www.casapuntos.com armeriacasapuntos 618 68 98 55
Pol. Ind. Cordovilla Parcela 3, Nave 4. 31191 - Cordovilla - Nafarroa



Ameriketako ibiliko artzainak museoaren atarian. ALICIA DEL CASTILLO



Artzainak liburua eskutik dutela. ALICIA DEL CASTILLO

Artzainen museoak liburuarekin ospatu du lehen urteurrena

Elgorriagako museoak 2.500 bisitari baino gehiago izan zituen ia eta ardi kanpoen soinua aditzeko aukera ematen du orain

TTIPI-TTAPA

Duela urtebete pasatxo, 2021eko abenduaren 29an ireki zuten Euskal Artzainak Ameriketako Museoa Elgorriagan. Neli Yancik konposatutako Euskal Sheep Company kantua ezagutzera eman zuten orduan. Abenduaren 30ean, berri, museoaren lehen ur-

teurrena ospatu zuten eta, bidenabarkoan, bertze *musika* klase bat, ardi kanpoko soinuak aditzeko aukera izan zuten eta Euskal Artzainak Ameriketako Elkarteak argitaratu duen liburuaren aurkezpena ere egin zuten. Malerrekako 200 bat artzain baino gehiagori buruzko datu bio-

grafikoak, kontakizunak eta argazkiak bildu dituzte liburu dotore honetan, bertze zenbait jakingarri interesgarriekin batera.

Aitzinetik, txistulariek lagunduta bisita gidatua egin zuten museoan barrena. Izan ere, Museoan zenbait berrikuntza egin zituzten joan den urtean, Nafarroako Parlamentuan onartutako emendekin baten bidez. Aurtengorako ere onartu dituzte laguntzak, beraz, museoak hobetzen joateko aukera izanen dute, gure ingurutik Ameriketara artzain joandakoen historia jendarteari ezagutzera ematen segitzeko. Aipatzekoa da joan den urtean 2.500 lagunek bisitatu zutela Artzain Amerikanoen

Museoa Elgorriagan eta Laura Igantzi, Euskal Artzainak Ameriketako elkartearen lehendakariaren erranetan, «beraiek egindako iruzkinak bultzada eman digute lanean segitzeko eta pixkanaka museoak hobetzen joateko».

Urteurrenako ekitaldian izan ziren Nafarroako Gobernuak ordezkariak ere: Pello Pellejero, Kanpo Harremanetarako zuzendaria eta Museoaren ataleko Mikel Ozkoidi, baita Euskal Artzainak Ameriketako elkartearen ordezkariak ere.

Malerrekako artzainei buruzko liburu hau 15 eurotan eskura daiteke museoan bertan, Doneztebeko Ostiz partegian edo elkartearekin harremanean paratuta.



UTZITAKOIA

Jubiloteketako kideen topaketa

Malerrekako jubilotekako kideak elkar ezagutzeko asmoz, topaketa egin zuten abenduan Ezkurako, Sunbillako, Donamariako eta Zubietako kideek Donamarian. 28 lagun inguru bildu ziren Herriko Ostatuan. *Hator hator* abestia kantatu, bingoan aritu eta gosaria egin zuten.



DONEZTEBE FT

Bastizano garaile areto-futboleko

Doneztebe Futbol Taldeak hamargarren urtez antolatutako Eguberrietako areto-futbol txapelketa jokatu zen abenduaren 23tik 31ra. Hamasei talde aritu ziren eta finalean, Bastinazo taldea nagusitu zitzaion Manchester Titiri. Hirugarren posturako lehian, Arantzak irabazi zion Tzelziri.



Batzarrean parte hartu zuten delegatuak. UTZITAKOA

Delegatuen biltzarra egin du Arkupeak Elkarteak

Aurtengo ekintzak gauzatzeko, 620.542 euroko aurrekontua onartu dute

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Arkupeak Elkarteak abenduaren 21ean egin zuen delegatuen biltzarren urteko azken bilera Donezteben duen egoitzan. Bilera hasi aitzinetik, minutuko isilunea egin zuten berriki hil den Pablo Irastortza idazkariaren oroimenez, eta familiari doluminak azalduz.

Bileran hainbat erabaki hartu zituzten, tartean elkartearen Nafarroako Jubilatuen Konfederazioan sartzea, eta horretarako arrazoia eman zituzten. Azkeneko sei hilabeteetako ekitaldien garapena eta bazkideen parte hartzea positibotzat jo zuten, eta 2023ko plan orokorra ere azaldu zuten. Aurtengo ekintzak gauzatzeko 620.542 euroko aurrekontua ere onartu zuten.

Bileran orain arte Oizko delegatua izan den Maria Jesus Arozenak delegatu izateari utzi zion. Egindako lana eskertu zioten, eta bere postua betetzeko deialdia ireki zuten. Norbaitek bere burua aurkeztu nahi badu, martxoaren 9a baino lehen egin beharko du.

Bilera bukatzean, Fernando Etxeberriak elkartearen his-



Fernando Etxeberria opari eskuetan.

toriari buruz idatzi duen liburua aurkeztu zuen. Elkartearen kideek, urte hauetan egindako lana eskertzeko, Ezkurra bere herria irudikatzen duen koadroa eman zioten opari, bertso batzuekin. Pakita Mikelarenak kantatu zizkion bertso horiek bileran bertan.

27. buletina prest

Elkartearen jarduna biltzen duen 27. buletina prest eta etxeetan dago jadanik. Buletina ongi begiratu eta izen emate egunak kontua hartzeko deia egin dute. Horrekin batera, jakinarazi dute akats bat dagoela; orri bakoitzaren goiko aldean 2022 jartzen du, baina, 2023. urtekoa da banatutako buletina.



Mendi irteeran parte hartu zuten bazkideak. UTZITAKOA

Urdazubin eta Ainhoan egin dute urteko azken irteera elkarteko mendizaleek

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 20an, hilabeteko hirugarren asteartero bezala Arkupeak Elkartearen mendigoizaleek beren txangoa egin zuten. Urteko azken irteeran Pakitto zuten antolatzaile eta gidari, eta Nafarroan eta Lapurdin egin zuten txangoa.

Hasieran Urdazubi herriaren inguruan hitzordua, baina azkenean Dantxarinea auzoan elkartu ziren elkarteko 50 lagun. Bertako Axular gunetik atera ziren mendizaleak eguraldi ona lagun zutela. Muga bazterretik Ainhoara

joan ziren Gorraineko bideetik barrena.

Karrika auzoa pasatu eta Harrazpiko bidean Xara auzoa ikusi zuten. Kisua egiten zen harrobi zaharrean gosatu eta eta Lapurdin ordu bat eta erdiz ibili ondoren Landeribar auzotik barna berriz ere Axular gunera ailegatu ziren. Denera hiru ordu eta erdiko ibilbidea osatu zuten.

Eguna bukatzeko, Axularren dagoen Oihana jatetxean bazkaldu zuten.

Aurtengo lehenengo mendi irteera urtarilaren 19an egingen dute.

Santo Domingo de la Calzadan eta Guardian izan dira bazkideak

TTIPI-TTAPA

Bidaia zuten segitzen dute elkarteko bazkideek, eta Errioxara egindakoa izan zen iaz egin zuten egun bateko azken irteera. Abenduaren 15ean hiru autobusetan aterata Errioxako Santo Domingo de la Calzada herrira joan ziren.

07:00etan atera ziren autobusak, eta 11:00ak alderako ailegatu ziren Errioxara, eta bertan denbora librean izan zuten hiria ezagutzeko. Katedrala eta inguruan zeuden jaiotzak ikusi zituzten eta hirian barna pasean ibili ziren.

13:00etan autobusa hartu eta bazkaltzera joan ziren Guardiako La Huerta Vieja jatetxera. Bazkaldu ondoren, Guardia ezagutzeko aukera izan zuten. Han Katximorrok eta bi dantzarik osatutako erloju biziduna ikusteko aukera izan zuten. Erloju berezia da, San Joanetako musikarekin dantza egiten baitute figurek orduero.

Eguraldi hagitza ona izan zuten bazkalondoa egin zuen euri pixka bat kenduta. 18:00etan, egun ederra pasatu ondoren, etxera itzuli ziren.



Urtarrilaren 1az geroztik indarrean dago deskontuak ezartzen dituen neurria.

Deskontuak Gipuzkoako errepideetan

Gipuzkoako errepideetan maiz ibiltzen diren auto-gidari nafarrek eta iparraldeko herritarrek deskontua eska dezakete

TTIPI-TTAPA

Nafarroan edo Ipar Euskal Herrian bizi eta lana edo ikasketak direla medio maiz Gipuzkoako ordainpeko errepideetan barna ibili behar dutenek bidesarrietan deskontua izateko aukera dute.

2023ko urtarrilaren 1az geroztik indarrean dago Gipuzkoako gaitasun handiko errepideen erabiltzaileendako deskontu plan berria, partikularrendako eta profesionalendako. Hilean gehien ere 35 euro ordainduta, gipuzkoarrek bezala nafarrek eta iparraldeko herritarrek baliatzen ahal dute deskontu hori.

Nola egin eskaera?

Eskaera www.bidegi.eus webgunearen bidez egin daiteke. Lehenik erregistratu egin behar da eta *Erregistratu* dioen tokian klikatu eta gero alta eskatuz *Deskontu arina ez-profesionala* moduan.

Zer agiri eskatzen dute?

- Ibilgailuaren zirkulazio baimena.
- Indarrean dagoen Nortasun Agiria edo pasaportea.



Eskaera egiteko lotura.

- Deskontuak kobratzeko kontu korrontearen titulartasun ziurtagiria, eta
- TAGaren titulartasun ziurtagiria.

Lau agiri horiek webgunetik bidaltzen dira. Eskaera egin eta hurrengo hilabetetik aitzinera aplikatzen dira deskontuak. Onuradunak hilero izanen du deskontua TAG ordainketa telematikoko gailu bat lotuta duen matrikula bakoitzeko. TAG ordainketa telematikoko gailua ezinbertzekoa izanen da, bertzelako ordainketa sistema bat erabiltzen duten bidaiek ez baitute deskonturik izanen. Gisa berean, gailu hori lotuta dagoen ibilgailua ez den bertz batean erabiltzen bada, baldintzak ez direla bete ulertuko dute.

Landa eremuaren etorkizunerako alternatiba nahi du Ernaik

TTIPI-TTAPA

Herrietan bizi duina lortzeko helburuz, *Landa eremuaren etorkizunerako herri alternatiba* orain dinamika aurkeztu du Baztan-Bidasoko Ernaik. Dioenez, «Euskal Herriak, eta bereziki Baztan-Bidasoa bezalako landa eremuko eskualdeek, aldaketa nabarmenajasan dute azken hamarkadetan. Urte aunitzetan herritarren lehentasun izan da landa eremua, izaera propioa garatu baitu lehen sektoreaz baliatuz eta herriko hesioa mantenduz. Halere, globalizazioak eta sistema kapitalistak erabat irauli dute bizimodua, komunitate izaera deuseztatuz eta herrietan bizitza duina izateko aukerak urratuz».

Bertzek bertz, «lehen sektorearen krisia» salatu du Ernaik; «makro-ereduak gailendu dira, abeltzain eta nekazari ttikiei trabak jarri dizkieten bitartean. Tokiko garapenari ateak ireki beharrean, Aroztegia eta Erdiz merkatu logikaren baitako proiektu txikitzaileak inposatu nahi dizkigute». Eta «oinarriko zerbitzuen galera» kritikatu du; «tokiko dendak itxi, osasun etxeetan zerbitzua emateari utzi, herrietako eskola ttikiak itxi...». Etxebizitzaren arazoa ere salatu du «etxebizitza sarbidea ez dugu bermatua, eta Baztan-Bidasoko etxebizitza hutsen ehunekoa Nafarroakoa bikoizten du». Eta mugikortasuna ere kezka iturri da; «garraio publikoaren gabeziak eta horrek sortzen duen autoarekiko dependentziak gehiago zailtzen du herri ttikietan bizirauteko aukera».

Arazo horiek «eskualdearen etorkizuna» baldintzatzen dutela eta, «egoera irauli eta Baztan-Bidasoko bizimodua bizigarria izan dadin alternatibez hausnartzeko» deia egin die Ernaik gazteei: «Herria bizi dadin, herritarro egin behar dugu ekarpena».

628 langabetu urtea bukatzeko Doneztebeko enplegu bulegoan

TTIPI-TTAPA

Azaroan baino berrogeita bat langabetu gehiago zeuden apuntatuak Doneztebeko Enplegu Bulegoan abendu hondarrean. Zehazki, 628 dira 2022 urte bukaeran ize-na emandakoak, 2021eko abenduan baino bederatzita gehiago.

Zerbitzuen arloan izan da igoerarik handiena, azaroan baino 32 langabetu gehiago baitira arlo horretan (455). Industria arloan ere, hilabete lehenago baino hamabortz langabetu gehiago zeuden abendu hondarrean (108). Eraikuntza arloan ere langabetu bat gehiago zegoen (24). Bertze arloetan, aldiz, langabeziak zertxobait beheiti egin zuen urteko azken hilabetean. Nekazaritza-abeltzaintza arloan lau langabetu guttiago zeuden (17), eta aitzinetik lanik egin gabekoen artean hiru langabetu guttiago (24).

Urteko bilakaera

2021 urte hondarrean 619 langabetu zeuden eskualdean. Normalean bezala, urtarrilean goiti egin zuen langabetu kopuruak (666) eta otsailean izan zuen urte osoko kopururik handiena (682). Martxoan beheiti egin zuen (645) eta apirilean zertxobait goiti (654). Hiru hilabetez segidan beheiti egin zuen langabeziak (maiatzean 637 langabetu, ekainean 590 eta uztailean 585), baina udako hondarreko bi hilabetetan goiti egin zuen (abuztuan 604 eta iraillean 610). Urrian izan zen urte osoko kopururik baxuena, 573 langabetu, baina hondarreko bi hilabetetan berriz goiti egin zuen (587 azaroan eta 628 abenduan, maiatzaz geroztik izan den kopururik handiena).

Inauteriak 2023

Leitza



Agitaraua

Ilbeltzak 20, ostirala

Goizean Erleta eskolako ikasleen emanaldia auzoetan.

Ondotik kalejira.

Ilbeltzak 21, larunbata

14:00: Aurreran bazkaria eskean aterako direnentzat.

16:00: auzoetako eskea.

00:00: karaokea Atekabeltzen.

Ilbeltzak 22, igandea

12:00: gurdien irteera eta moztaroen kalejira Incansables txarangarekin.

12:00-14:00: txu-txu trenaren herria.

14:30ean bazkaria eskolako jangelan.

Ondotik Incansables.

16:00-18:00: Txu-txu trenaren herria.

19:00-22:00: DJ Oixani.

Ilbeltzak 23, astelehena

09:00: Gorritaran, Arkiskil, Erreka eta Sakulu auzoetako eskea txistulariek eta Incansables txarangak lagunduta.

17:00: umeen kalejira trikitilariekin.

Ondotik txokolatada.

19:00-22:00: DJ Oixani.

Ilbeltzak 24, asteartea

09:30: Erasote auzoan eskea herriko txistulariekin.

11:00-13:00: puzgarriak frontoian.

14:30: eskelarien bazkaria Aurreran.

16:00-18:00: puzgarriak frontoian.

18:30ean atsaureen kalejira herriko musikariekin.

20:00-22:00 eta 23:30- 01:00 Gabenara taldea plazan.

Ilbeltzak 25, asteazkena

17:00: Ekain pailazoaren 'Aho bete hortz' ikuskizuna Herri Aretoan.



ZEURE BURUARI
DENBORA ESKAINIZ ZAINDU

Gozatu Ihoteak!

Elbarren kalea, 43, 2. Aldea
Tel. 646 568 753

Melo Pinturak koop.
T. 609 873 178
LEITZA
www.pinturasmelo.com
pinturasmelos@gmail.com



EROSKI city

Urdaiegia



Harategia



Arroindegia



Frutategia



Tel: 948 510 007 - 948 610 657
Elbarren, 20-71

ongi pasa ihoteak!



PERITZA
TABERNA

Ihote onak pasa
eta txintxo ibili

MILA ESKEK
ANTOLATZAILEEI



ongi pasa ihoteak!

Herriko Plaza
LEITZA

Tel. - Faxe:
948 510 146

maimurleitz@gmail.com

• Prentsa • opariak • testu liburuak
• Plastifikatzeak • enkuadernatzeak
• Inprenta lanak • fotokopiak



OGI BERRI
ARTESANOS PANADEROS
KAFETEGI
OKINDEGIA

948 610 974 | LEITZA



Lirain
Arropa-denda

ONGI PASA
IHOTEAK!

Elbarren 34, LEITZA



676737856

**BEATRIZENEA**

TABERNA-JATETXEA

Ongi pasa ihoteak!

menua · otartekoak · kaxuelitak · pintxoak

Mikel Deuna, 2 · Tel: 948 510 991 · LEITZA



taberna

Ongi pasa ihoteak!

Pintxo eta ogitarteko aukera zabala



677 721 688

Uharte Gotzaina 2 LEITZA

MAXI VICENTE

ERAIKUNTZAK

ongi pasa ihoteak!

Amazabal, 17 · LEITZA · 606 307 810

LEITZELARREA S.L.

Aroztegi eta Galdereria

Landa Beikoa Industrialdea, 20

Tel: 948 510 598 · 669 368 991

LEITZA

gaztelu sclKALERAJAZIOA · SANEAMENDUA · GASA · ITURGINTZA · KLIMATIZAZIOA
BAIJA ZIURTAGIRI ENERGIKOAK ERELanda Behikoa Ind. 21 · LEITZA
T. 948 510 086

info@fontaneriagaztelu.com · www.fontaneriagaztelu.com

*Ongi pasa ihoteak!**ongi pasa ihoteak!***FISIOETXEA**Ane Egizabal Llata
Fisioterapeuta

K-STRETCH METCOOA

026 kolegiatu zenbakia

Osteopatia

Gimnasia Abdominal Hipopresiboa

Birkortze ariketak · Kinel eta Zirkulazio Masajea

Uharte Gotzaina, 8 3.C · LEITZA · T. 948 510 730

**KIDE**
aholkularitzaKONTABILITATEA
ZERGAK
AUTONOMOAK
ENPRESEN SORRERAK
ERRENTA-ANTORPENAKAHOLKULARITZA-JURIDIKOA
NOMINAK, KONTRATUAK,
ESKRITURAK TRAMITATZEA
HERENTZIAK,
LOKALAREN SALEROSKETAK...*ongi pasa ihoteak*

LEITZA: Landa Ind. Suizpi Eraikina 3 behea

T. 948 510 990 · F. 948 510 429

DONOSTIA: Tolosa hiribidea, 5-2 · T. 943 420 348

www.kide.eus

info@kide.eus · izaskun@kide.eus

**Maite Perurena Loiarte**

Leitzako inauterizalea

«Egunerokotasunetik atera eta taldean gozatzeko egunak dira»

«Bizitzako garraztasunak umore eta alaitasunez janztea» gustuko duen emakumea da Maite Perurena Loiarte leitzarra. Kantatzea, lagunartea, mendia, irakurketa, zinea, eskulana, sendabelarrak... ditu zaletasun, eta noski, herriko inauteriak ere bai: «egunerokotasunetik atera eta taldean gozatzeko uneak dira, umore, kolore, txistu, kanta eta dantzaren eritmorra».

Txikitatik bizi izan ditu; «orotzapen asko ditut, denak oso onak, bereziki baserriko eskeko momentukoak. Due-la 43 urte atera nintzen lehenengoz Erreka auzoko baserrietara eta geroztik urte bakarrean huts egin dut, nahiz eta kanpoan bizi, umeak izan eta bizi-tzako gorabehera asko nozitu».

Inauterien aurretik prestaketak egin behar dira: «etxean ditudan trapu eta jantzi zahar guztiak atera eta neure buruarekin eta ingurukoekin konbinazioak egiten hasten naiz, oso momentu barregarria izaten da. Orain modan dago moztarriak erosi eta denak berdin janztea, baina niretzako trapu zaharren arteko joko horrek xarma handia du, bakoitzak bere gustura moldatzen duelako».

Etzeko lanak ere eginak utzi behar dira: «etxean guztiak gara parrandazaleak eta otorduak eta prestaketak aurretik antolatu behar izaten ditugu». Eta noski, «Erreka auzoan bizi garenez, eskelariei gure atea irekitzeko lana parrandarekin uztartzen dugu».





Inauteriak hastean, «kale giroan antolatutako ahal dudana guztietan parte hartzen dut, lagunekin eta ingurukoekin disfrutatuz». Astelehenean eta asteartean «bereziki gustuko dut txistularien itzalean baserriko eskea ibiltzea».

«Jostatzea, koloreekin jokatzeta, itxuraldatzea eta urtean zehar jarriko ez nituzkeenak janztea» da gehien gustatzen zaiona, «beste norbaiten laruan sartzea, desinhibitzea, inguruko zirikatzeta, barre egitea eta ongi pasatzea».

Pandemian «gure modura» ospatu dituzte inauteriak eta aurten «gogotsu» hartuko dituzte; «nire sasoiak ez dago nik nahiko nukeenaren pare baina inauteriek beti ilusio berezia egin didate». Gainera, Leitzako inauteriak «disfrutatzeko edozeini irekiak» daudela azpimarratu du. «Beste herri batzuetan

eskea egiten da, baina ez dira Leitzan bezain parte-hartze irekikoak».

Urteekin inauteriak «asko» aldatu omen dira; «lehen oso jende gutxi mozzoratzen zen, eta orain adin guztietako emakumeek eta gizonek parte hartzen dute». Gainera, festa nagusiak «asteleheneko eskea eta bazkaria eta astearteko parranda» izan ohi ziren, «gaur egun asteburuko parranda gailendu da, larunbatean hasten da ospatzen eta igande goizak indarra hartu du atsaureen herri bazkariarekin».

Eskeari dagokionez, «pixkanaka galtzen ari da, zoribarez baserri asko hustu eta ohiturak galtzen ari direlako. Bizitza bezala, inauteriak aldatzen ari dira eta gure gazteek eskerako formula berriak asmatu beharko dituzte ohitura eder honi eutsi nahi bazaio».

**«Jostatzea,
koloreekin jokatzeta,
itxuraldatzea eta
urtean zehar jarriko
ez nituzkeenak
janztea gustuko
dute»**

Lopenea
«Ihote ongi pasa!»
Elbarren, 47 - LEITZA
606 27 35 34 - 688 64 08 34
www.lopenea.com

BOKATAK - KAKULAK
MENUA - PINTXOAK
PLATER KONBINATUAK

Dia OKABIO
SUPERMERKATUA
KAFETEGIA

Ihote zoriontsuak
opa dizkizuegu!

T. 948 510 731
Landa Etxea
Leitza

EZKAIN eraikuntzak S.L.



**ongi pasa
ihoteak!!**

Lizarraga, 3 • LEITZA
M. 650 910 868 • 650 910 867
T/F. 948 610 956 • 948 610 956
ezkain1@gmail.com

EROSI ONLINE
www.lamascara.es

LA MASCARA

Inauterietako mozorroetan den-dena daukagu
Era guztietako osagarrien salmenta
Makillaje profesionala

www.lamascara.es
mascara@lamascara.es
Abejeras, 6 | IRUÑEA | T./F. 948 25 00 04

**TXOKO
TABERNA**

Plater konbinatuak,
errazioak,
ogitartekoak...

ONGI PASA
IHOTEAK!!

Elbarren, 22 Leitza
948 510 227



**Leitzako
Udala**

Ongi pasa ihoteak!



LEIMEN S.L.

Era guztietako elektrizitate lanak
LEITZA 628 725 396 Argoitz
MENDILLORRI 628 725 397 David

Ihote zoriontsuak denoi!!

Inauterien atarian hainbat kultur hitzordu

Asteburu honetan izanen dira aurtengo aurreneko film emanaldiak

TTIPI-TTAPA

Urte bukaerako eta hasierako ospakizunak atzean utzita, inauteriei begira izanen dira gaurgero herritarrak. Baina hori baino lehen, bestelako hitzorduak izanen dira, besteak beste, Herri Aretoan. Larunbat eta igande honetan, ilbeltzaren 14an eta 15ean, adibidez, urteko aurreneko zinema emanaldiak izanen dira. 16:30eko saioan *Hopper oilaskoerbia* pantailaratuko dute, erdi oirlasko eta erdi erbi jaio zen abenturazale ospetsuaren istorioa, eta 19:00etako saioan Galiziako herri ttiki batera bizitzera joan den bikote baten istorioa kontatzen duen Rodrigo Sorogoyenen *As bestas* pelikula. Oroitu sarrerak lehenagotik eskuratu nahi izanez gero, www.leitza.eus atarian eros daitezkeela.

Ekain pailazoaren ikuskizuna

Denok Bat Guraso Elkarteak Ekain pailazoa gonbidatu du ilbeltzaren 25ean. Aho betehortz ikuskizun dibertigarria egingen du Herri Aretoan, 17:00etan.

Irakurle taldea

Irakurle taldeak ere hilabeteroko martxarekin segitzen du. Hilabete bakoitzeko bigarren asteazkenetan bildu ohi dira liburutegian. Abenduko hitzorduan Sylvia Plath-ek idatzitako eta Garazi Arrulak euskaratuko *Beirazko kanpaia* liburuaz aritu ziren eta hilabete honetan, asteazken honetan, hilaren 11n, Josep Plak idatzi eta Jexux Mari Zalakainek itzuli duen *Kale Estua* izanen dute esku artean.

Elena Arteta liburuzainak adierazi duenez, «mundu guztia parte hartzera gonbidatua dago».



JM BARRIOLA

Orantzarori ongietorri beroa

Orantzarok etxe aurreetan eta balkoietan, Eguberrietako kantuen doinuak herriko hainbat txokotan... Halaxe esnatu zen abenduaren 24a. Eta arratsaldean, ongietorri beroa egin zieten herritarrek Orantzarori. Jendetza elkartu zen plazan hango ikuskizunaz gozatzen.



Fernando Oiartzun abenduaren 22ko aurkezpenean. JM BARRIOLA

Leitzako hitanoa jorratzeko liburua nahi duenaren eskura

JUAN MARI BARRIOLA

Bi urteko lanaren ondoren, kalean da Fernando Oiartzun Sagastibeltzak ondu duen *Hika eta toka. Noka ere toka!* liburua. Hiketan ikasteko eta herria hobeki ezagutzeko asmoz auzolanean osatu du eta ALKE kultur taldeak argitaratu du. Abenduaren 22an aurkeztu zuen Herri Aretoan eta hitzorduak jakin-mina piztu zuen seinale, jende asko hurbildu zen.

Lan mardula osatu du Oiartzunek, herriko hainbat emakumezko zein gizonezko elkarriketatuz, eta hala bildu

ditu hikako formak. Horrez gain, aditz taulekin eta hainbat adibiderekin hornitu du.

Herria hobeki ezagutzeko helburua ere badu liburuak, eta herriko bizimoduaren eta ohituren erakusle diren historiak eta istorioak ere papelean jaso ditu.

Noka eta toka

Bereziki noka da galzorian dagoena Leitzan, adineko emakumeak direlako batez ere erabiltzen dutenak, eta hortik dator izenburuaren bigarren zatia: *noka ere toka*, alegia, noka ere tokatzen dela.



MIKEL ILLARREGI

200 bat lagun urteko azken ostiralean

Urteko azken ostirala berezia izatea nahi zuen Sarek, eta helburu horrekin gonbidatu zituen abenduaren 30eko ekitaldira olerkariak, irrintzilariak, harri jasotzaileak, abesbatzakoak, dantzariak, bertsolariak, preso ohi bat eta senide bat... *Extxera bidea gertu* lelopean 200 bat lagun bildu ziren plazan.

Aurtengo Itzuliko bigarren etapa herrian bukatuko da

Lasterketa apirilaren 3tik 8ra jokatu da eta bigarren etapa Vianan hasi eta Leitza bukatuko da

TTIPI-TTAPA

Itzulia antolatzen duen OCETA elkarteak joan den hilabetearen jakinarazi zituen 62. edizioko etapak. Lasterketa apirilaren 3tik 8ra jokatu da eta bigarren etapa Vianan hasi eta Leitza bukatuko da. Iazko Itzuliko etapa bat Leitza hasi eta Vianan bukatu zen eta Euskal Herriko Itzuliko antolatzaileek eta Leitzako eta Vianako udalek sinatu zuten akordioari esker, aurtengo etapa alderantziz egingen dute, Vianatik Leitzara. Txirrindulariak Gasteiztik abiatuko dira eta sei egun beranduago Eibarren bukatuko dute.

nan bukatu zen eta Euskal Herriko Itzuliko antolatzaileek eta Leitzako eta Vianako udalek sinatu zuten akordioari esker, aurtengo etapa alderantziz egingen dute, Vianatik Leitzara. Txirrindulariak Gasteiztik abiatuko dira eta sei egun beranduago Eibarren bukatuko dute.

Basozainen bulegoa Irurtzunen zentralizatu dute

TTIPI-TTAPA

«Eskualdeko herritarren, babes zibileko boluntarioen, eragileen eta udalen aldarrikapenei muzin eginez, Nafarroako Gobernuak Leitzako Udaletxean zuen basozainen bulegoa hustu du». Halaxe jakinarazi zuen udalak abenduaren 20an eta «albiste

penagarritzat» jo du erabakia. Herriko bulegoa itxita, zerbitzua Irurtzunen zentralizatu dute. Udaren hitzetan, «herritarrei arreta zuzena eskaintzeko eta horren garrantzitsua den prebentzioa modu zuzenean koordinatzeko azpiegitura bat gutxiago dugu orain eskualdean».



UTZITAKO ARGAZKIA

Jeiki abesbatzaren emanaldi ederra

Urte borobiltzeko kontzertu ederra eman zuen Jeiki abesbatzak abenduaren 29an. Jon Larrazen biolontxelo doinu lagun zutela aritu ziren Jeikikoak eta ederki goxatu zituzten elizara hurbildutakoen belarriak. Ez ziren gutxi izan gainera, eliza bete egin baitzen. Jeikikoak ere oso pozik gelditu ziren.



Korrikalariak urtezahar egunean lasterketarako prest. ANIKOTE UDAL KIROLDEGIA

152 korrikalari bildu dira San Silvestre lasterketan

TTIPI-TTAPA

Bederatzi urtez azpikoak izan ziren aurrenak, hamar eta hamabost urte bitartekoak ondoren, eta hamasei urtetik gorakoak azkenik. Mozorroak soinean, 152 parte hartzailek osatu zuten Anikote kiroldegia, Kaxkabeltza merkatarien elkarteak eta Denok Bat guraso elkarteak

antolatuta, urtezahar egunean egin zen VII. San Silvestre lasterketa. Sailkapenik ez zen izan, baina guztiek jaso zuten oparia, baita moztarro hoberenak ere. Kaxkabeltzak 50 euroko lau bonu zozketatu zituen eta Aurrerak Osasunaren futbol partidarako bi sarrera eman zizkien haurren moztarrik hoberenei.



Illarregi Nafarroa Arenako finalean. ARTURO ELOSEGI / ITURRIA: XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

Joanes Illarregiren saio ederra Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean

TTIPI-TTAPA

Hilabete eskas pasatu da Bertsolari Txapelketa Nagusiko final gogoangarri hartatik, baina ezin aipatu gabe utzi Joanes Illarregi Marzola herri-tarraren lana. Estreinako finala zuen eta «holako oholtza haundi batean gorputzaldi eta alderdi on batekin kantatzea»

omen zen bere nahia, «plaza horrek niri gain hartu behar-rean, hor egoten jakitea. Eta asmatu dut». Baita ederki asmatu ere. Publikoaren aldetik jaso zituen txalo zaparradak izan ziren horren lekuko. Publikoarengana ailegatu zen bere freskotasuna. Bejondeizula, Joanes!

«Betizuak kontrolatzeko teknologia berri bat ezarriko dugu aurten»

UNAI MIRANDA BERROETA GOIZUETAKO ALKATEA

Urte bukaeran iragarri zuen EH Bilduk Unai Miranda Berroeta izanen dela Goizuetako alkategaia aurtengo udal hauteskundeetan. Azken agintaldi honen errepasoa egin du TTIPI-TTAPAREKIN

G. PIKABEA GOIZUETA

2019an hartu zuen alkatearen aginte makila Unai Miranda Berroetak, eta bide beretik segitzeko asmotan da, bera izanen baita aurtengo udal hauteskundeetan EH Bilduren hautagaia Goizuetan. Orain arte egindako ibilbideaz mintzatu da, eta «lehentasun nagusia despopulazioari aurre egiteko neurriak hartzea» izan dela aitortu du. Baina kontu gehiago ere izan ditu hizpide. Besteak beste, eztabaida sortu duten bi puntu polemiko mahai gainean jarri ditu: betizuen gaia eta herri lurren ordenantza eguneratzeko prozesua.

Agintaldiko azken txanpan sartuta, zein balorazio egingen zenuke? Egindako lana herritarrek baloratu beharko dute. Nire ustez, gisa honetako ardurak hartzen direnean, helburu nagusiak herritarren bizia hobetzea izan behar du. Gu horretan saiatu gara; seguru batzuetan asmatu izanen dugula eta beste batzuetan ez. Edozein kasutan, gurea bezalako herrietan lehentasunak ditugun zerbitzuak mantentzea eta ahal den neurrian hobetzea izan behar du, eta hori lortu dugula esanen nuke. **2019ko hauteskundeetan lehenbizikoz aurkeztu zinen hautagai. Zergatik aurkeztu zinen?**

Garbi dut gurea bezalako herrietan bertan bizi garenok egin behar dugula herria ateratzeko ahalegina, bakoitzak bere esparruan eta ahal duen neurrian, baina guk egiten ez badugu, ez

du inork egingen. Beraz, proposamena sortu zenean, familiarekin adostu ondoren, aurrera egitea erabaki nuen.

Udalaren barrenean eta kanpoan herriaren alde lan egitea diferentia izanen da...

Oso desberdina. Udalean sartu aurretik, herrigintzarekin lotutako hainbat eragiletan aritu naiz: guraso elkarteak, Umore Ona elkarteak, Goizukoop... Baina udalean egoteak beste ikuspegi bat ematen dizu. Hasteko, herritarrek hobeki ezagutzeko aukera, baita administrazioa ezagutzeko aukera ere, eta konturatzeko zara askotan herritar batek tramite sinple bat dirudiena egiteko udalera jotzen duenean, administrazioan zenbat eskutatik pasa behar den eta horrek nola atzeratzen duen erantzuna. Erantzunak emateko azkartasun falta hori ez daramat bate-re ongi, baina konturatzeko naiz administrazioak berme bat eskaini behar duela eta horretarako denbora behar dela. Agian bizkortu egin beharko lirake prozesu batzuk, baina askotan ez dago udalaren esku.

Zein izan dira lehentasunak?

Ur edangarriaren deposituak eta hoditeria aztertzea eta ho-

betzea, herriko pista printzipalen egoera hobetzea, mendietako birlandaketekin jarraitzea eta ditugunak mantentzea. Baserritarren bizi baldintzak hobetzea eta lehen sektorea indartzea ere lehentasuna izan da, baina, batez ere, gure lehentasun nagusia despopulazioari aurre egiteko neurriak hartzea izan da. Hor kokatzen ditugu, besteak beste, herrian dauden oinarrizko zerbitzuak mantentzea, Goitikiaren egoera bideratzea eta, batez ere, despopulazioari aurre egiteko tresnarik eraginkorrena den etxebizitzaren eragitea.

Agintaldi honetatik zer nabarmenduko zenuke?

Alkatea izateaz gain, Mendialdea Mankomunitateko lehendakaria ere banaiz, eta bi erakunde horien inguruan eskualdean zein lurralde mailan lan egiten duen jendea eta erakundeak asko dira. Herri tikientzat ezinbestekoa da eskualde mailan antolatzea erronkei aurre egiteko. Teknifikazio haundia eskatzen du edozein proiektu aurrera ateratzeak eta hori herri tikietan ezinezkoa da. Horregatik eskualde mailako erakundeek garrantzia haundia dute eta izanen dute.

«DESPOPULAZIOARI AURRE EGITEKO ETXEBIZITZAN ERAGIN BEHAR DA»

«DENOK GARA EZINBESTEKOAK GOIZUETA INDARTZEKO»

Etxebizitzaren gaia aipatu duzu. Zein da egoera?

Azken aldian, alokairuan etxebizitza hartuko luketenen eskaria sumatu dugu udalean. Saiatzen gara eskaera bakoitzari irtenbidea ematen, baina beti ez da lortzen. Egia esan despopulazioari aurre egiteko tresna garrantzitsua hori dela kontuan hartuta, kezkatzen gaituen egoera da. Horregatik, batetik, udalaren jabetzako etxeak lehenbailen alokairu sozialera bideratzeko lanean ari gara, eta bestetik, etxejabeekin lanketa egin behar dugu Nasuvinsaren laguntzak zein diren adierazteko eta erabiltzen ez diren etxebizitzak behar duenaren esku jar ditzaten gonbidatzeko. **Betizuen gaiak tokia hartu du zuen agendan. Goizuetar bati baino gehiagori aditua da: «Goizuetako mendiak betizuz josiak daude»...**

2021eko datuen arabera, Goizuetan 812 behi azienda daude erregistratuta, gehienak betizuak. 2015ean 577 ziren. Datu objektiboak dira, eta horri gehitzen badiogu betizuak urte guztian mendian libre ibiltzen direla eta nahi baino gehiagotan herrian, errepidean edo baserri inguruetan dabilzala, herritar askoren sentsazio hori areagotu egin da, eta haserre mintzatzeko dira udalari soluzio eske. **Ustekabeko bat edo beste ere izan dira betizuekin Goizuetan...**

Egia da, bai. Mendian libre ibiltzen direnez, nahiz eta ez den oso ohikoa izatean, egun berean eta paraje berdintsuan bi susto izan genituen.

Nafarroako Gobernuarekin ere bildu zarete arazoari soluzioa eman nahian. Zertan dago kontua?

Bai, hartu-emanak izan ditugu, bai gaiaren inguruan zeresana izan dezaketenekin, baita abeltzaintza departamentuarekin, ASBENArekin (Betizu arrazako elkarteak) eta INTIArekin ere. Estentsiboan bazkatzen dituzten azpien inguruan azken hilabeteotan Nafarroan teknologia berri bat probatzen ari omen dira eta emaitzak onak direla diote. Teknologia horrekin, itxitura birtual bat ezarrita

aziendakez omen dira ateratzen. Gure mendietan funtzionatuz gero, garbi dago irtenbide egokia izan daitekeela. Gurean probak egiteko eskatu dugu.

Soluzioa izan daiteke?

Gaiak ez dauka soluzio errazik. Gure ustez, irtenbideak baliagarria izan behar du abeltzaintzentzat eta gainontzeko herritarrentzat. Goizuetako mendien neurria ikusita, azizendak ibiltzeko nolabaiteko mugak ezartzea izan daiteke aukera bat, leku jakin batzuetan ez ibiltzeko: herri inguruan, baserri inguruetan, mendiko bide batzuetan, errepidean... Izandako bileretan aipatu diguten teknologia hori lagungarri izanen dela pentsatzen dugu, eta EHBilduk Nafarroako aurrekontuetan sartutako emendakin bati esker, aurten teknologia hau betizuekin gure mendietan ezarriko da.

Herri lurren ordenantza eguneratzeko prozesuak ere eztabaida sortu du herrian. Azalduko zenuke?

Bai, herri lurren aprobetxamendurako ordenantza berritzeko prozesuan gaude. 2010ekoa da indarrean dagoena, eta duela bi urte NPBrako (PAC) hektareak banatzerakoan, eskaria eskaintza baino haundiagoa izan zen. Egoera azaltzeko lantalde bat sortu genuen, besteak beste, herri lurren egoera hobetzeko eta ordenantza eguneratzeko. Lantalde horrek bere lana egin du. Horrez gain, herri lurrak hobetzeko, topaketa bat egin genuen, eta momentu honetan hurrengo urteetako mendi komunalaren antolamenduaren bigarren errepasoa egiteko prozesua irekia dagoenez, bertan jasoko ditugu larreak hobetzeko egin beharreko ekintzak. Ordenantzari dagokionez, berritzeko prozesu parte hartzaile bat egin dugu eta oso positiboa izan da. Hiru bilera egin genituen, batez beste 25 bat lagunek parte hartu zuten, nahiko orekatua genero ikuspegitik, baita hainbat auzotako herritarrek parte hartu zutelako ere. Guztiek izan zuten iritzia eman eta ekarpenak egiteko aukera,



2019tik Goizuetako alkatea izan da Unai Miranda Berroeta. UTZITAKO ARGAZKIA

eta horiek kontuan izanda sortu genuen ordenantza berria izanen denaren zirriborroa.

Zirriborroak aldeko eta kontrako iritzia sortu ditu...

Prozesu parte hartzailean bost punturen inguruan hitz egin genuen: herritar bakar batek erabiltzeko lurren kudeaketa, auzolana arautzea, mendieta-ko batzordeak sortzea, NPBrako hektareak esleitzeko irizpideak eta tasak. Gai bakoitzeko ekarpenak jaso eta erabakiak

adostasun zabalarekin hartu genituela esanen nuke. Harritu gaitu udalari herritarren aurkako ordenantza egitea leporatu izana. Ulertzen dugu ordenantzaren puntu batzuk desadostasuna sortu izana zenbait abeltzainen artean. Normala da denak gustura ez egotea, baina orokorrean, prozesu parte hartzailean bildutako ekarpenek ordenantza zuzen eta osatu bat egiteko aukera eman dute, eta gustura gaude emai-

«GUSTURA GAUDE ORDENANTZEN EMAITZAREKIN ETA BABESAREKIN»

«NORMALA DA ORDENANTZEKIN DENAK GUSTURA EZ EGOTEA»

tzarekin, hurbildutakoen babes zabala sentitu dugulako. Eztabaida sortu duen puntu baten adibide gisa, duela 37 urtetik aldatu gabe zeuden tasak eguneratu dira. Jakitun gara ez dela inoren gustukoa tasak igotzea, baina uste dugu indarrean dauden tasak minimoaren azpitik daudela eta ez datozela bat errealitatearekin. Ez da zuzena tasak % 200 igo ditugula esatea, jatorria non dagoen argitu gabe.

Nola dago ordenantzen kontua?

Prozesu parte hartzailearen buka-
tu ondoren, orain hasierako onarpena eman behar du udalbatzak. Ondoren helegiteak aurkezteko epea irekiko da, eta gero behin betiko onarpena indarrean sartu aurretik.

Udal hauteskundeetara aurkeztuko zarela iragarri du EHBilduk...

Bai, EHBilduko alkategaia izanen naiz. Dena den, hurrengo urteetako erronkei erantzuteko denok izanen gara garrantzitsuak, udal talde sendo bat, herritar konprometitutak, herri eragileak eta herritar bakoitzaren ekarpena. Denok gara ezinbestekoak Goizueta indartzeko.

Zerbait gaineratuko zenuke?

Urte hauetan egin duguna goizuetarrei bixitza hobetzeko helburuarekin egin dugu. Lanetako batzuk hauek izan dira: Bekolandako zeharbidea zola-berritu, Tifanitxon eragileentzako espazioak egokitu, udal-letxean igogailua jarri, ur ihes batzuk konpondu, komun publiko bat ireki, eskolan eta medikuaren kontsultategian inbertsioak egin, *Goizueta infomezularitza* zerbitzua martxan jarri... Beste lan batzuek hurrengo hilabeteetan emanen dute emaitza: erreka inguruan udaren sortzen den egoera bideratzeko prozesu parte hartzailearen emaitzen zain gaude, edadetuen diagnostiko bat egiten ari gara Nafarroako Gobernuarekin, eta Ospitalea eraberritzeko lanean ibili gara. Emaitzak ematea espero dugu. Horrez gain, gure ustez, herritarrentzat kultur eta kirol eskaintza urte osoan edukitzeak goizuetarren bizi baldintzak hobetzen ditu.

Zerbitzu anitzetako langilea hartu nahi du udalak

Lanpostua oposizio-lehiaketa bidez bete nahi du eta eskaerak aurkezteko epea urtarrilaren 16an bukatuko da

TTIPI-TTAPA

Zerbitzu anitzetako enplegatuen lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia egin du udalak eta urtarrilaren 16an bukatuko da eskaerak aurkezteko epea.

Besteak beste, herriaren garbiketa lan orokorrak, udal eraikinetako, instalazioetako eta biltegietako mantentze lanak, hiri altzarien instalazioa eta mantentzea, uraren kontrol analitikoa, udal azpiegiturak eta eraikinak mantentzeko lanak, baso lanak, pista eta bideen mantentzeko lanak... egiteko

egin du deialdia udalak. Izen-datuak udalaren funtzionario izaera izanen luke, eta D mailari dagokion ordainsaria.

Plazarik gabe gelditzen diren izangaiekin, aldi baterako kontratazioak egiteko zerrenda osatuko du udalak, eta sor litekeen edozein beharretarako erabili ahal izanen du.

Larreak erretzeko baimena

Abenduaren 21 az geroztik zabalik da mendian larreak erretzeko baimenak eskatzeko epea. Urtarrilaren 31ko 12:30 arteko epea izanen da horretarako.

Bhutan proiektuaren barne, eragileek egiten duten lana aitortu nahi dute

TTIPI-TTAPA

«Herriarren arteko tratu onak bultzatzeko eta auzokideen arteko harremanak sendotzeko» helburuarekin, 2016an jarri zuten martxan Bhutan proiektua Goizuetan eta Aranon. Joan den urtean, herritarrek adierazitako behar bati erantzunez, proiektua ezagutarazteko aprobetxatu zuten eta gizarte zerbitzuen arabera, orduan azaleratu zen «azken urteetan herritarren parte hartzea nabarmenki murriztu dela». Parte hartzea «zaintzaren ardatz nagusietako bat» dela iritzita, «lanketa beharrezkoa zela ikusi genuen».

Hori horrela, bi herrietako eragileen, komertzioen, tabernen eta bestelako gune hezigarri garrantzitsuen lana» aitortu nahi izan dute azken kanpainan. «Erleak ezitia egiteko prozesuan



Eragileei banatu dieten pegatina.

bezala, eragile bakoitzak egiten duen ekarpenari esker, herri bizia, tratu onez josia eta zaintzailea eraikitzeko alea ereiten da». Kanpainaren barne, gutuna helarazi diete eragileei, baita pegatina bat eman ere, «leku ikusgarrian jartzeko». Herritarrei, berriz, eskuorriak banatu eta «gune horiek zaintza eta parte hartzearekin lotutako gunetzat identifikatzeko eta dagokien balioa emateko» deia egin diete.



Urtezahar egunean ohi bezala Mandoegira irteera egin zuten. IGARATZA APEZTEKXA

Arainburu mendi taldeak mendian federatzeko aukera zabaltzen du

TTIPI-TTAPA

Otsailean Sasaingo erreka izan zen, martxoan eskalada ikastaroa, maiatzan Aranola, irailean Artikutza, urrian Hiru Erregeen Mahaia, abenduan Artzan-Iribar-Ilarbieta-Espide ingurua eta urtea borobiltzeko urtezahar egunean Mandoegi. Horiek izan ziren Arainburu Mendi Taldeak joan den urtean zapaldu zituen kaskoak eta egin zituen ateraldiak. Lerro hauek idazterakoan, aurtengo hitzorduak oraindik zehaztu gabeak zituen, baina arduradunak dagoeneko presatzen hasiak dira.

Aurreratu dutena Arainburu - Umore Ona klubarekin mendian federatzeko aukera izanen dela da. Interesatuak bi bide izanen dituzte horretarako: norberak berea egin dezake Nafarroako Mendi Federazioaren webgunearen bidez (www.mendinavarra.com/gestion/), edo bestela, taldearekin harremanetan jarrita. Kasu horretan 648 07 05 00 zenbakira WhatsApp bidez ondoko datu hauek bidali beharko dira: izen abizenak, NAN zenbakia, helbidea, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa.



FELIX LOIARTE

Ohiko ekitaldiak giro ederrean

Eguraldia lagun, olentzeroak bizkarrean hartuta, etxez etxe Eguberrietako kantzak kantari pasatu zuten abenduaren 24ko goiza herritar askok. Arratsaldean frontoian jarraitu zuen festak, Olentzerori eta Mari Domingiri harrera bikaina eginez.

551.220 euroko aurrekontua onartu du Aresoko Udalak

225.879 euro inbertsioak egiteko bideratuko ditu eta hainbat proiektu ditu esku artean

ENERITZ IRAOLA ARESO

Abenduaren 26an egindako batzarrean 2023ko behin-behineko aurrekontua onartu zuen udalak: 551.220,16 eurokoa. Aurrekontuaren zati handiena ohiko gastuetara bideratuko da, hala nola, langilegoaren gastuak ordaintzeko eta ongi-zate eta gizarte zerbitzuetara. Inbertsioetarako 225.879,10 euro izango dira eta hainbat proiektu dituzte esku artean.

Bideeta azpiegiturak hobetzen segitzeari lehentasuna emango dio udalak eta dagoeneko lortua dute Urteaga eta Gañarbeko

pistetan hobekuntzak egiteko eta Juantoneko Bordatik garbikura doan Sagastibeltza errekan hodiak sartzeko dirulaguntza bat. Eskoletxean erabilera anitzeko gela barrutik hornitu, balkoiak berritu eta espazioa erabiltzen hasteko asmoa du. Ur sarean ere izango dira hobekuntzak, ur horniduran bonba bat aldatu eta beste konponketa batzuk egitekoak baitituzte. Abeltzaintzan, depositu berria jarriko da Perratokieta azpian azienden aska hornitzeko eta baserri batzuetako bidea asfaltatzeko laguntza eskatu dute.

Aresoko Guraso Elkarteko saskiak badu irabazlea

Guraso elkarteak Eguberrietan zozketatu duen saski ederrak Zegamarako bidea hartu du aurtengoan. 5.490 boletoa izan da saritua eta Ana Iraola saritutako boletoaren jabea. On egin Errigorako produktuekin, urdaiazpikoarekin eta beste hainbat gutuziarekin!

Mendian federatzeko epea zabalik Areson

Mendiko kirol lizentzia eta aseguru Aresoko Mendi Taldearen eta Kirol Mankomunitatearen bidez egin nahi dutenek izen emate orria bete, ordainketa egin eta agiriak kirolmankomunitatea@gmail.comera bidali behar dituzte. B eta C kategorietan deskontua izango dute.

Kuadrilla ederra bildu da Aranon Eguberri bezperako kalejira

AINHUA ANSA ARANO

Eguraldia lagun, giro ederrean joan zen abenduaren 24ko goizean egindako kalejira. Kuadrilla haundia elkartu zen eta olentzero bizkarrean hartuta, kantuz alaitu zituzten herriko txokoak. Goizeko itzulia boro-biltzeko Kontsejun bazkaldu


zuten. Bestalde, Beltsoko bordako Maixuxek urtero prestatzen duen saskia tabernakoei tokatu zitzaion. Lerro hauen bitartez, eskerrak eman nahi dizkiegu umeen, gazteen eta horien gurasoon partetik, modu batera edo bestera egun honetan parte hartzen duten herritar guztiei.



ENERITZ IRAOLA

Lagunarte goxoan aresoarrak Eguberrietan

Kantuak ezpainetan eta ilusioz gainezka ibili dira haur, gazte eta helduak Eguberrietan. Abenduaren 24an, Olentzerok eta Mari Domingik ez zuten hutsik egin eta besteak beste, gorosti bat ekarri zuten; naturatik jaso eta naturari egindako oparia. Urtarrilaren 5ean, erregeak etxetik opariak banatu behar zituzten.



NEGUKO KIROLN NAFARROAKO FEDERAZIOA

Adur Etxezarreta munduko kopan

Munduko kopan lehian ari da Adur Etxezarreta aresoarra eta denboraldiko lehen puntuak eskuratu ditu berriki Val Gardena/Groesenen (Italian), 52. geldituta. Aurretik, Lake Louise (Kanada) eta Beaver Creeken (AEB) jokaturako probetan ere parte hartu zuen, baina pistatik aterata ez zuen punturik lortu.



Olentzero bizkarrean herritar asko bildu zen Eguberri bezperan. UTZITAKO ARGAZKIA

Urtea ongi hasteko jarduera ugari Baztanen

Solasaldiak, tailerrak, proiektzioak eta erakusketak izanen dira bailarako hainbat herritan

TTIPI-TTAPA

Hilabetero bezala, Baztango Kultura Zerbitzuak urtarileko agenda kulturala argitaratu du, herritar guzien gusturako jarduerekin.

'Jolasak eta solasak'

Urtarrilaren 14an haur eta gurasoendako *Jolasak eta solasak* tailerra emanen du Dindaia Fundazioak Arizkunenean 17:00etan, Baztango Euskara Zerbitzuak antolatua. Ahozko tradizioetik bildutako hainbat kantu jostatzeko erara irakatsiko dituzte. Izen ematea euskara@baztan.eus helbidera idatziz.

Baztan Kantuz

Musika eta kantatzea gustuko dutenendako hitzordua Oronozen izanen da hilabete honetan. Urtarrilaren 15ean 12:00etan Urgain jatetxearen plazan elkartuko dira.

San Anton Eguna

Urtero bezala, urtarrilaren 17an, San Anton Eguna ospatuko dute Elizondoko plazan, udalak eta zahar etxeak antolatua. Txistulariak izanen dira goizean, 11:00etan zopak banatuko dituzte eta 13:00etan zozketa ginen dute.

Zinema zikloa

Iruritako Gizarte Bilgunean zinemarekin segituko dute aurtan, eta hilabete honetan *Berpiztu* dokumentala proiektatuko dute 20an, 19:00etan. Filmak Kepa Junkeraren azken urteetako bizipenak kontatzen ditu, kultur ondarearen eta osasunaren aldarrikapena eginez.

Erakusketa

Hilaren 16tik 20ra *Lur azpiko solasak*. Loizuko gizona argazki erakusketa Arizkuneko lehenbiziko solairuan izanen daikusgai, 17:00etatik 20:00etara. Maitane Tirapu arkeologoaren Loizuko leizeko lana biltzen du erakusketak.

Solasaldia

Urtarrilaren 20an Ordesako karstaren esplorazioari buruzko solasaldia emanen du Otxola espeleologia taldeko Ernesto Pratek Elizondoko Amezti elkartearen, 19:00etan.

Ibilaldia

Hilaren 21ean Amezti elkarteak Amaiurko gazteluan ibilaldia antolatu du 10:00etan. 09:30ean Elizondo plazatik abiatuko dira autoak partekatuzko, eta Amaiurko indusketa lanak eta Erratzuko bunkerrak ezagutuko dituzte, Aranzadi Zientzia elkarteak Mattin Aiestaranekin eta Xaraka Natur Bidaia-eko Eneko Eskuderorekin.

Helduendako antzerkia

Urtarrilaren 22an Joseba Apalazak, Ainhoa Etxebarriak eta Koldo Olabarrik *Sagastitarrak* antzezlanak aurkeztuko dute Gizarte Bilgunean 18:00etan. Goi burgesiako familia baten istorioa kontatzen du, feminismoa eta tradizio patriarkalak kontrajartzen dituenak.

Euskal Nobela Beltzaren Astea

(H)ilbeltza - Idazleekin solasean elkarteak Euskal Nobela Beltzaren Astea antolatu du bertze behin. Urtarrilaren 23tik 29ra ospatuko da aurtan.



(H)ilbeltza antolatu duen lan taldea aurtengo kartela eskuan duela. (H)ILBELTZA

(H)ilbeltza urtarrilaren 23tik 29ra

Euskal Nobela Beltzaren Astea bueltan da Baztanen, eta aste osoko egitaraua prestatu dute bailarako hainbat herritan, euskal nobela beltzaz gozatzeko aukera emateko denei.

Urtarrilak 23, astelehena

- Idazleekin solasean. *Suak erreko ez balu* nobelaren aurkezpena, Eneko Barberena V. (H)ilbeltza bekaren irabazlearekin. Arizkungo medikuaren etxean, 19:30ean.

Urtarrilak 25, asteazkena

- *Odol bearbaguea, agirtuco da eguia eurea* solasaldia Joseba Sarrionandiarekin. Anizko Mendiarte elkartearen, 19:00etan.

Urtarrilak 27, ortziralea

- *Kareletik* (Anjel Lertxundi, 1987) filmaren emanaldia. Iruritako Gizarte Bilgunean, 19:00etan.

Urtarrilak 28, larunbata

- Mahai-ingurua. *Zurian beltz. Literatur itzulpenak eta itzulpozak* Garazi Arrula eta Garazi Ugalderekin, Amaia Apalauzak gidatua. Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean 11:00etan.

- Bazkaria Erratzuko elkartearen 14:00etan. Txartelak ilbeltzabaztanen@gmail.com helbidera idatzita eskuragarri.

- Liburu aurkezpenak: *Amaiur bat urtero* Jon Alonsorekin, *Euskalia* Mikel Alvarezekin eta Leonardo Sciasciaren *Todo modo* Gaizka Ugalde liburuaren itzulatzailerarekin. Erratzuko elkartearen bazkalondoan.

- Susmagarrien gaua. *Baz Tawn*. Erratzun barna iluntzean.

Urtarrilak 29, igandea

- Itzuli beltza. *Gorputz gorrituen solasa*. Oronozko aparkalekuan 11:00etan.

- Kontzertua. *Zuri beltzean* Ruper Ordorikarekin. Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean 19:00etan.

(H)ilbeltza - Idazleekin solasean elkarteak antolatu ditu jarduerak.

Agintaldi berrirako alkateak aukeratzeko prozesua martxan

Iruritik eta Lekarozek ez dute alkategairik aurkeztu lehen batzarrean

TTIPI-TTAPA

Baztango kargu berritze prozesua abenduko hirugarren asteburuan abiatuz, 2023-24 agintaldirako alkateen aukeraketarekin. Batzarrak egin zituzten herri guztietan, hamahirutan alkateak aukeratu.

Bederatzi herritan azken alkateek agintaldiarekin segituko dute: **Almandozen** Pello Sarrateak, **Amairuren** Ixabel Alemanek, **Arizkun** Imanol Etxeberriak, **Berroetan** Carlos Garaikoetxeak, **Elbeten** Imanol Juanikotenak, **Elizondon** Aitor Bazterrikak, **Gartzainen** Fernando Arraztoak, **Oronoz-Mugairin** Jorge Oteizak eta **Zigan** Joxean Etxeberriak. Garaikoeak laugarren agintaldia du Berroetan eta Arraztoak borzgarrena Gartzainen.

Hiru herritan alkate berriak aurkeztu zituzten: **Anizen** Iñaki

Zelaieta Kristina Fernandez ordeztu, **Arraiozen** Aritz Alundak hartuko du Joxelu Retegiren lekukoa eta **Azpilkuetan** Juan Andres Azkaragak ordezkatzeko du Aitor Iturralde. Honez gain, **Erratzun** lehenbiziko batzarran alkategairik aurkeztu ez bazen ere, abenduaren 31n bigarren batzarra egin zuten eta Iñaki Sanzberro aurkeztu zen Kaiet Itoitz ordezkatzeko.

Alkaterik gabe

Iruritan eta **Lekaroz** ez zen hautagairik aurkeztu lehen batzarran eta egungo alkateek, Pello Iriartek eta Ernesto Pratek, kargua uzteko borondatea erakutsi dute. Ordenantzek agindutakoaren arabera, Errege egunean zuten egitekoa hurrengo batzarra, hautagairik aurkeztuko den ikusteko.



Amairuren, Elbeten eta Elizondon orain arteko alkateek segituko dute. ONDIKOL

WWW.ILBELTZA.EUS

EUSKAL NOBELA
BELTZAREN ASTEA
BAZTAN
2023KO ILBELTZAREN
23TIK 29RA

ILBELTZA

Etxebizitzari buruzko solasaldia 19an Elizondon

Hirigintzako abokatua eta EH Bilduren hirigintzako arduraduna den Joxe Abaurreak emanen du mintzaldia

TTIPI-TTAPA

Baztango EH Bilduk adierazi duenez, «etxebizitza edukitzea eskubidea izateaz gain, oinarritzko baldintza da bizimodu duina izateko. Alta, jende gero eta gehiagorendako gero eta zailagoa da etxe bat izatea. Baldintza horietan, galdera begi bistakoa da: nola bermatu bizitegia herritar guztiei?».

Honi erantzuteko, udal taldeak mintzaldia antolatu du urtarrilaren 19an 19:00etan Arizkunenean, Joxe Abaurrea hirigintzako abokatua eta EH Bilduren hirigintzako arduradunaren eskutik.

Hainbat arazo aztergai

Mintzaldian hainbat gai landuko ditu Abaurreak; «badira tokiko-ingurua gainditzen duten egiturazko joerak, merkatuaren nagusitasuna adibidez. Baina badira bertze batzuk, tokiko mailan, neurri batean bederen jokatzeko ahal direnak, etxe hutsena, adibidez. Horri buruz aipagarria da Baztango etxeen %22 hutsik dagoela eta %14 bigarren bizitegia direla. Horrek, bistan

denez, etxe hutsekin egin daitekeenari buruzko galdera dakar».

Honez gain, bertze galdera bat planteatu du udal taldeak; «hainbertze etxe huts egonik, gehiago eraiki behar al da? Normalki eraikuntza berriak nekazaritzako lurretan egiten dira eta ikusirik geroaldia zein nahasia heldu den, ez al da zentzuzkoa nekazaritzako lurak altxatzea?».

Gainera, «Ipar Euskal Herrian gertatzen ari denari begira, argi dago ostatu-turistikoen eskaintza jakin bat bederen, ohiko bizitegien eskaintzarekin lehian dela. Bertze tokietan nola kudeatu dute horrelako aukia?».

Azkenik, 2022an Nafarroako Parlamentuak onartutako etxebizitzaren lege berria aztertuko dute, «jakiteko indarrean den legearen arabera zein aukera dauden etxebizitza izateko eta lurra zaintzeko».

Hitzordu honekin, aitzineko hilabeteetan adinekoen zaintzari eta turismoari buruz egindako solasaldiei segida emanen die EH Bilduk.



Etxe etxe urtetxak eskatuz hasi dute urtea Anizko haurrek. M. MARITORENA

Ongi akitu eta hobeki hasi dute urte berria aniztarrek

MAITANE MARITORENA

Hiru ekitaldi izan ditugu Anizen, urtea ongi akitu eta hobeki hasteko. Abenduaren 24an, urtero bezala Olentzeroren bisita izan genuen. Olentzero soinean hartu eta etxez etxe ibili ziren haurrak, kantuan eta jan-edanean. Herri ttipia izanagatik, hiru ordu eta eta erdi behar izan zituzten etxe guztiak bisitatzeko. Ondotik norbera bere etxerat joan zen otordua egitera eta Olentzerok ekarritako erregaluak irekitzera.

Abenduaren 26an, berriz, Baztango *Rekreo* bandaren kontzertua izan genuen. Eliza jendezlepo betezen musikarien emanaldia aditzera.

Ilbeltzaren 1ean, Urtats egunean, haurrak etxez etxe ibili ziren *urtetxak* eskatuz. Espresuki egun honetarako jositako sakela handiko mandarrak soinean paratuta, etxe guztie-

tan kantatu ondotik larrainerat botatako mandarinak, intxaurrak, litxarrerriak... bildu, eta ondoko etxerat, berriz ere kantatzera.

Inauterietarako prest

Eguberriak akituz bezala, atsedenerako tarterik gabe, inauterriak izanen ditugu Anizen. Eguberrietan etxeko ateak hurrei ireki bazitzaizkien, ilbeltzaren 14an gazteei irekiko zaizkie. Ortziralean afaria izanen da elkartean, basurde jatea. Larunbatean, berriz, gosariarekin hasiko dute eguna Anizko eta Berroetako gazteek. Gosaldutik, etxez etxe ibiliko dira puxkak biltzen: arroltze, xingar, txixtor... ondotik, bildutako puxkekin afaria izanen da elkartean.

Ondoko astean, ilbeltzaren 21ean, gauza bera izanen da, baina kasu honetan Berroetan.

BRIKO BAZTAN, SL

Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jarzea

Pinturak
Fatxadak
Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052
San Andres, 66 - NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

Arraiozen ere eskean hasi dute urtea gazteenek

Urteroko tradizioari segituz, etxez etxe herriari itzulita eginez hasi zuten 2023a Arraiozko haurrek urtarrilaren 1ean. Eskean eta kantuan ibili ziren eta giro ederra izan zuten herrian.



NEREA MORTALENA



N. ARIZTIA

Olentzeroren bisita Baztango herrietan

Abenduaren 24an Baztango herriek Olentzeroren bisita izan zuten, urteko gaurik bereziena bihurtuz hainbertze haurrendako. Azpilketan ere, ilunabarrean gazte eta haurrek harrera ederra egin zioten Olentzerori, musikaz lagunduak eta giro goxoan.

Ingurumena solasgai Aiora Zabalarekin

«Ingurumen erronken aitzinean gogoeta egitera eta aldatzeko ekintzak egitera» animatu die Zabalak herritarrei

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak eta Talde Ekosozialak antolatua, *Naturagure* esku liburua aurkeztu zuen Aiora Zabalak abenduaren 28an Elizondoko Arizkunenea kultur etxean.

Antolatzaileek adierazi dutenez, «inguratzen gaituenetik abiatuta, ingurumenari buruzko gogoetan barneratzen du irakurlea Zabalak. Buruzburu ditugun ingurumen erronken aitzinean gogoeta egitera eta aldatzeko ekintzak egitera animatuz. Haatik, ez da liburu aholku emaile edo preskriptiboa, ezta katastrofista ere. Norberak gogoeta egin eta erabaki kontzienteak hartzeko da, erabaki horiek zeinahi direla».

Mintzaldiak gela bete zuen, jendearen interesaren erakusgarri. Egilearen hasierako



Jendetza bildu zen aurkezpenean.

hitz hartzearen ondotik, galderak egiteko txanda ireki zen, elkarrizketa emankorri bide emanez.

Aiora Zabala

Aiora Zabala Aizpuru, sortzez irundarra izanagatik, Zigan hazitakoa da. Ekonomia Ekologian doktorea da eta gaur egun Erresuma Batuko Open Universityn eta Cambridgen Ingurumen Politikako irakaslea da.

ferretería Quevedo

TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK



Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · www.ferreteriaquevedo.com



Hainbat urtez antolakuntzan aritu diren elkarteko kideak. TTPI-TTAPA

Bestaren ardura utzi du Baztandarren Biltzarra Elkarateak

Bertze talderen batek ardura hartuko balu, elkarteko kideak laguntzeko prest egonen liratekeela adierazi dute

TTPI-TTAPA

Baztandarren Biltzarra Elkar-
teko kideek bestaren ardura
utzi dutela jakinarazi dute. «Urte
hauetan, jende anitzen lagun-
tza boluntarioa hartu dugu eta
bihotzez eskertzen dugu. Hala
ere, denbora luzeaz ardura gure
esku hartu dugu eta gure zikloa
ixteko tenorea dela sentitzen
dugu».

Argi utzi dute «elkartaren
gidaritza bertze talderen batek
hartzen badu, gure laguntza
izanen duela; aholkuak emanez,
bidelagun lana egiteko erabat
prest gaude. Are gehiago, arras
kontent paratuko gara norbai-

tek segida ematen badio hain-
bertze urtez gure artean egon
den besta eder honi».

60 urte

Baztandarren Biltzarra bestak
60. urteurrena beteko luke
aurten; «urte aunitz izan dira,
arras politak eta aberatsak.
Eskerrak eman nahi dizkiegu
modu batean edo bertzean
elkartari laguntza eman dio-
ten guztiei. Gure euskarri izan
dugun leloak biziarazi gaitu
eta hori izan da gure oinarria.
Beraz, ardura hau utzi arren,
beti harro aldarrikatuko dugu:
Baztanen eskuara barra-barra!».



ONDIKOL

Virgilio zapata dendak 100 urte

Akitu berri dugun urtea berezia izan da batez ere Elizondoko
zapata-dendarendako, 100 urte bete baititu. 1922an ireki
zuen denda Virgilio Gonzalezek, eta Isabel Gonzalez biloba
arduratzen da gaur egun negozioaz, Paco Alzugarai
senarrarekin batera.



ONDIKOL

Elizondoko San Silvestrean bikain

Urtea akitzeko, 260 korrikalarik parte hartu zuten Elizondoko
XII. San Silvestre lasterketan eta Unai Barazabal eta Leire
Ahechu izan ziren garaile. Gizonezkoetan Iñaki Telletxeak eta
Eneko Esparak osatu zuten podiuma. Emakumezkoetan,
berriz, Maria Vaquerok eta Olaia Mendiburuk. Zorionak!

ANZABAL
Inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Oharriz Auzoa z/g - LEKARAZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harrilain.com www.harrilain.com

HARRI LAN S.L.
GIZONEZKOETAN

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

NAFARROAN HERENTZIAK ONARTZEKO EDO HAEI UKO EGITEKO HAMAR PAUSO

1- Hasteko, heriotza ziurtagiria lortu. Normalean tanatorioek ematen dute eta bertzela, erregistro zibilean eska daiteke. Ezinbertzekoa da hurrengo tramiterako.

2- Azken borondatearen ziurtagiria eta aseguru kontratua eskatu. Bi dokumentu horiek aldi berean eskatu behar dira Justiziako Lurralde Gerentzian. 7,72€ ordaindu behar dira, eta heriotza egunetik 15 egun pasatu arte esperatu behar da eskuratzeko.

3- Testamenturik baldin badago, masa hereditarioa adostu (ondasun higigarriak eta higiezinak) eta jatorria egiaztatzen da.

4- Testamenturik ez badago, oinordekoen deklarazioa egin behar da, hildakoaren legezko oinordekoak izendatzeko.

5- Onartzea edo uko egitea erabaki. Inbentarioa ongi eginda, garrantzitsua da herentzia kontuetan aditua den norbait izatea, kalkuluak egin behar dira eta onartu edo ukatu nahi den erabaki.

6- Herentzia onartu eta Ogasunari dokumentazioa aurkeztu. Notarioaren aitzinean edo notariarik gabe onar daiteke herentzia. Ogasuna izaten da beti dokumentazioari balioa ematen diona. Nahitaezkoa da Ogasunaren aitzinean hainbat dokumentu aurkeztea, gerora zigorrak saihesteko.

7- Oinordekoek bankura joan behar dute oinordetzan hartutako saldoak banatzeko eta titulartasun aldaketa egiteko. Gero, udal katastroan eta behar diren jabetza erregistroetan dokumentazio guztia aurkeztu behar da.



8- Herentzia onartu eta zorrak badaude, ordaindu behar da?

Nafarroan, herentzia ondasunen balioaren zenbateko arte onartzen da. Horrek erran nahi du oinordekoek ez dutela euro bat ere ordaindu beharko herentziak zorrak baldin baditu.

9- Nola adierazi behar da herentzia bati uko egin nahi zaiola?

Notarioarengana joan eta espresuki adierazi behar da herentziari uko egin nahi dela.

10- Zer gertatuko da oinordeko batek herentziari uko egiten badio eta bertze batzuek onartzen badute?

Horretarako garrantzitsua da gaian aditua den norbaiten aholkuak biltzea. Izan ere, kasu batzuetan, oinordetzan hartutako ondasunak tronkalak baldin badira, familiara itzuliko dira, eta gerta daiteke, senide bati utzi nahian nahi ez dugun familiako bertze kide bati uztea.



Zuregandik
hurbil gaude



Mugaz gaindiko
herentzien onarpena



Gizarte segurantzian
pentsioen eskaera



Herentziari lotutako
gatazketan bitartekaritza



Egiazko Olentzero eta Mari Domingi plazan. MARIFA ETA KORO

Berrikuntza ttiki batzuekin ederki joan dira Eguberriak

Mari Domingi lehen aldiz izan da Olentzeroren ondoan etxola ttikian eta eskutitzak uzteko buzoia ere paratu dute

MARIFA ETA KORO

Ederki eta bere hortan joan dira Eguberriak. Hala ere, aipatzeko aldaketa ttiki batzuk badira. Alde batetik, plazan emandako apaingarrien artean Mari Domingi ere agertu dela lehenbiziko aldiz. Hantxe zegoen olentzeroren ondoan estu-estu jarrita, beraien etxola ttikian. Atean, haurrek eskutitza uzteko buzoi bat ere bazen. Bertzalde, urtezar eguneko seinalerik apenas ez da ikusi karrikan, eta ematen du ospakizuna biharamunera pasatzen ari dela, azken bi urteotan Urte-berri egunean



Olentzero eta Mari Domingi extu-extu.

ikusi baitira Azketa jatetxean besta giroko bazkariak, plazan gauera arte luzatzen direnak.

Eskolako guraso elkarteak hamasei saski zozketatu eta sari guztiak emanak ditu.



MARIFA ETA KORO

Akelarrek bigarren eskuko merkatua

Bigarren eskuko neguko merkatua antolatu zuen Akelarre Elkarteak abenduaren 28an. Kanpoko aldean egitekoa zen, baina egun haizetsua zenez, barneko aldean egin behar izan zuten. Udaberrian ere bertze merkatu bat egiteko asmoa daukate, eta hau bai karrikan egiteko esperantza daukate.

Azketako aparkalekuko semaforoak hautsi

Eguberrietako ospakizunak, orokorrean, ederki joan badira ere, batzuei ez zaie urte berria hasteko modu hoberik gogoratu eta Azketako aparkalekuko bi semaforoak hautsi dituzte. Urtezahar gaueko bestaren ondorio izan dela uste dute, baina horrelakoak soberan daude beti.



UTZITAKOA



Lezea, museoa eta Azketa jatetxea hetsita asteotan

Neguko giroan gaudelaren seinale bat, lezeak eta museoa hesten direla da. Urtarrilaren lehenbiziko hamabortzaldian museoa guztiz hetsita egon da, eta lezea larunbatetan eta igandetan bakarrik irekiko da. Azketa jatetxea ere hetsita dago urtarrilean.



Olentzerok eta Mari Domingik musikarien laguntza izan zuten. ARANTXA ETA IRAIA

Herrian eta Dantxarinean Eguberri ederrak

Herriko musikariek alaitu zuten Olentzero eta Mari Domingiren etorrera eta Dantxarinean magia eta musika izan zuten

ARANTXA ETA IRAIA

Eguberriak hurbildu ahala herrian Olentzero eta Mari Domingiren etorrera ospatzeko ekitaldiak antolatu ziren. Lehenik, Dantxarinean, abenduaren 22an eta 29an magia ikuskizuna eta musika animazioa egon ziren. Magia ikuskizuna, Landibar eta Axular bentetan eman zuten, eta musika animazioa, berriz, Arretxea, Venta Felix, Venta Paco eta Venta Pantxon barrera izan zen.

Herrian, berriz, abenduaren 24an eman zitzaizen etorrera Olentzero eta Mari Domingi-



Magia ikuskizuna Dantxarinean.

ri. Urtero bezala, herriko musikariek alaiturik egin zuten menditik herrirainoko bidea, han zain ziren haur eta gazte guztiak agurtzeko eta musuak eta opariak banatzeko.



Olentzero eta Mari Domingi karrikaz karrika. ARANTXA ETA IRAIA



ARANTXA ETA IRAIA

Alkerdiko besta eta meza kaperan

Alkerdiko besta antolatu zuten auzotarrek abenduaren 17an. Montxon egin zen bazkari eder batekin ospatu zuten eguna, giro ezin hobearekin. Abenduaren 26an, San Esteban egunean, berriz, Alkerdiko kaperan meza izan zuten. Jende andana bildu zen eta gero luntxa izan zuten.

Urtea borobiltzeko sortzea izan da abenduan

Abenduaren hasieran urdazubiar bat sortu zen: Emma Arozarena Arrieta, abenduaren 5ean sortua. Urtea finitzeko etxekoak eta herria goxotasun eta berotasunez bete ditu. Zorionak familia guztiari! Emmaren sortzearekin batera urteko urdazubiar berrien zerrenda hesten da. Joan den urtean ere bertze bi sortze izan zirenez (Noa Hernandez Otegi urtarrilean eta Laia Suhas Etchart azaroan), herrian badago segida! Ongi etorri 2022an munduratuta-ko haur guztiei!

'Zinemaren lurraldea' argazki lehiaketa

Jakina da azken urteetan Urdazubik parte hartzen duela Nafarroa, zinemaren lurraldea lehiaketan eta horren bidez, herrian zenbait irudi eta filma grabatu dituzte. Zinema lehiaketarekin batera, argazki lehiaketa ere egiten dute, aurten bosgarren edizioa bete duena. Herrian ez dute argazkirik atera, baina jakinarazi dituzte dagoeneko azken edizio honetako irabazleak. Nestor Martinez Nievak lortu du lehen saria, Cecilia Vico Visintinik bigarrena eta Elena Irigoy Sarrateak hirugarrena.





1420an egindako margolana herriko etxera eraman zutenean. FRANCK DOLOSOR

XV. mendeko margolana herriko etxean ezarri dute

Erretoraineko selauruan topatu eta zaharberritze lanak egin ondotik denentzako ikusgai dago

GANEX

Duela urte batzuk, Frantxoa Garat apezak egurrezko kua-dro bat atzeman zuen Erretoraineko selauruan. Horrelako margolan ederra ikusita, Mikel Duvert idazleari erakutsi zion eta gero Baionako konserbato-rean ari den Mano Crutcharry-ri erakutsi zioten. Parisko Louvre museoan eta Geneve Unibertsitatean espertatu eta pintura egiazkoa dela ondorioztatu zuten.

Andre dena Mariari espre-rantzetan zela erraitera eto-rritako Gabriel aingerua erre-presentatzen du 56x36,5cmko



Deikundea irudikatzen du.

margolanak. 1420an egina da baina ez dute atzeman nork. Nola Erretorainea herriarena baita, orduan pentsatu dute bere lekua herriko etxean due-la eta hor eman dute.



BASAPIZTIAK TALDEA

Gaztetxearen bizkar besta larunbatean

Etxola gaztetxeko bizkar besta egingen dute urtarrilaren 14an, larunbat arratsaldean. 17:00etan bertso-poteoa egingen dute Plekatik abiatuta, Orgatxo Sound System-en laguntzarekin. 22:00etatik goiti Basapiztiak taldeak kontzertua emanen du. 23:30ean Ozpinduk taldearen kontzertua eta gero DJ Jotatxo.



GANEX

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera

Olentzero Mari Domingirekin etorri zen plazarat abenduaren 17an. Goxoki batzuk eman zizkien olentzerok eta haurrek Eguberrietako kantu batzuk eman zituzten trukean. Komertzianteen elkarteak eta Herriko etxeak krakada eskaini zuten Keinu gelan, Kiki Bordatxok ongi airostua.

25. 'Hatsaren Poesia' libururako olerkiak urtarrilaren 15era arte bidal daitezke

TTIPI-TTAPA

Hatsa elkarteak *Hatsaren poesia* liburuaren 25. edizioa argitaratuko du aurtun, eta zilarrezko urteurrena ospatzeko, «handia» egin nahiko lukete. Liburua osatzeko olerki bilke-ta hasi dute dagoeneko, eta urtarrilaren 15era arte jasoko

dituzte. Parte hartzeko gon-bidapena olerkari guzietan za-baldu diete.

Parte hartu nahi dutenek hurrengo urratsak segitu behar-kotuzte: 2-3 olerki bidaltzen ahalko dituzte, eta horrekin batera biografia labur bat, lauzpabortz lerrokoa, eta aur-

pegia argazki bat. Gainera, esaldi bakarrean edo bitan *zure hatsa (arnasa)? galderari erantzun behar-kotuzte. Denen erantzunekin talde-olerki bat eta bakarra osatuko dute.*

Olerkiak bidaltzeko bi modu daude: *hatsarenpoesia@gmail.com* posta elektronikoko helbi-dera idatziz edo posta arrun-taz: *Bidasoa Portzelan* 6, 4. B, 20303 Irun, Gipuzkoa.

Usaian bezala, olerkiak bal-dintzarik eta zentsurarik gabe hartuko dituzte eta udaberrian argitaratuko dituzte. Honez gain, apirilaren 16an liburuaren inguruan oturuntza han-di batean elkartzeko dira. Li-buruaren sar-hitza aspalditik hatsakide den Peio Jorajuria-rik egingen du, zoriz hala ego-kitu zaiolako eta liburuaren azalerako irudia, berriz, Ima-nol Irigoienek.



Herriko pilotariak kantaldi ederra eskaini zuten. JL BESSONART

Herriko pilotariak eta Xiberotarrak taldea kantari elizan

Araudiak hirugarren galeria erabiltzea debekatzen duelako jende anitz kanpoan gelditu da abenduaren 27ko emanaldian

JL BESSONART

Abenduaren 27an, elizaren gerizan, sekulako kantaldia eskaini zuten, herriko pilota taldearen ekimenez. Arrakastaren biktima bilakatu dira antolatzailerak, jende anitz kanpoan gelditu baita leku eskasagatik, araudi batzuek debekatzen zutelakoan 3. galeria erabiltzea. Sorpresa politarekin abiatu da ekitaldia aurreko kantatuarekin; pilotari gazteek, neska eta mutikoek, bizpahiru kantu ezagunekin utzi dute erreleboa, pilotari eta arduradun helduei. Hauek ozenki, beren ohiko moldean, kantu emanaldi bi-



Xiberotarrak taldekoak kantari.

kaina eskaini dute. Xiberotarrak taldeak gaitzeko erreperorioa azaldu du, ahots paregabekoe-kin, *Manexen* lurraldean. Gozaldi ederra harturik, publikoak luzaz txalokatu ditu artistak.



JL BESSONART

Suhiltzaileen besta eguna

Santa Barbara ongi ospatua izan da Zuraiden. Aurten Pascal Jorajuria zuzendari berriak hartu du Julien Ubiriaren segida. Zugarramurdin, Urdazubin, Ainhoan, Zuraiden, Saran eta Senperen, orotara 824 ateraldi egin zituen iaz, 44 suhiltzaile dituen (horietatik zazpi berriak) herriko zentroak.



JL BESSONART

Olentzero eta Mari Domingiren ateraldia

Olentzerok eta Mari Domingik agerraldia egin zuten abenduaren 16an. Goizean Ikastola eta eskola elebidunetako ikasleak, desfilearen ondotik, elgarretaratu beharrak ziren plazan. Zoritarrez, euriarengatik bilketa ezeztatua izan zen. Arratseko hitzordua ostatu eta karriketan biziki ongi iragan zen.



Kontraleihoak | Leihoak aluminio eta PVC
Itxidurak | Berandak | Toldoak
Barandak | Persianak

T. 00 34 948 630 962 - H. 31780 BERA
info@irekileihoak.com
www.irekileihoak.com



Herriko hauteskundeak otsailean

Prefeturak erabaki du noiz iraganen diren herriko bozak: lehen itzulua otsailaren 19an eta, beharrezkoa baldin bada, bigarrena otsailaren 26an. Hiru lista izanen dira lehian, *Ensemble pour St Pee* (Dominique Idiart buru); *Agir pour St Pee* eta *Hats Berri*.



Buruz buruko txapelketako finalistak, antolatzaile eta sari emaleekin. OSKAR GOÑI

Bortzirietako eskuz banakako txapelak banatu dituzte

Urtezahar egunean jokatu zituzten hamar kategorietako finalak Berako Eztegar pilotalekuan

TTIPI-TTAPA BORTZIRIAK

Bortzirietako eskuz banakako pilota txapelketako finalak jokatu zituzten abenduaren 31n Berako Eztegaran.

Txikiak B mailan Lesakako Oihan Irurieta Izquierdok 16-8 irabazi zion Etxalarko Juel Igoa Ansalasi. **Txikiak A** mailan, Igantziko Ainara Hita Aran-

gurenak 16-8 irabazi zion Arantzako Aiert Baleztena Goñiri.

Umeak B kategorian, beratzen arteko finala izan zuten. Oskitz Errandonea Legazkuek, 18-16 irabazi zion Mikel Ugalde Villanuevari. Umeak A mailan ere Berara joan zen txapela. Beñat Goñi Errando-

neak 18 eta 16 irabazi zion Eñaut Zubieta Gartziari.

Kimuak B mailan, igantziarren arteko finalean Eneko Almandoz Urbistondok 18-14 irabazi zion Aratz Laka Mitxelenari. **Kimuak A** mailan, Etxalarko Erik Igoa Ansalasek 18-17 irabazi zion Arantzako Ander Etxegarai Maizi.

Haurren mailan, Baionako Iraun Zeztan Telletxeak 18-14 irabazi zion Berako Gorka Alzugureni.

Mutil gaztetxoetan Berako Loitzate Goñi Elortzak 18-6 irabazi zion herri bereko Markel Korta Iratzokiri.

Neska gaztetxoetan, Nahia Bertiz Babaze sunbildarrak 18-6 irabazi zion Kattin Madariaga Apaolaza aranztarri. Amaur Martinez zen berez finala jokatzekoa, baina, azken orduan lesionatu zen lesakarra.

Gazteen mailan, lesakarren arteko finalean, Oier Orbegozo Arzuaga 18-6 nagusitu zen Beñat Etxabide Olazabalen kontra.

Sari banaketan izan ziren Miarritzeko munduko pilota txapelketan txapeldun izan zen Oihan Canabal igantziko pilotaria, eta Aitor Elexpuru Berako alkatea.

Jose txo Ezkurra Memorialean izena emateko epea zabalik

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Erreka elkarteak hogeita hamabigarren aldiz antolatuta-ko Jose txo Ezkurra Memoria- la pilota txapelketan izen emateko epea zabaldu du. Eskuz banaka eta lau eta erdiaren barrenean jokatu- den txapelketan, benjamin, alebin, infantil, kadete, jubenil eta senior mailako pilota- riek eman dezakete izena urtarilaren 29ra bitarte.

Horretarako, salaa@gmail.com helbide elektronikora idatzi behar da eta izen emateko orrian, telefono zenbaki bat eta posta elektronikoko helbide bat adierazi beharko dira. Benjamin eta alebin mailan Nafarroako pilotariak bakarrik onartuko dituzte.

Txapelketa martxoaren 5ean hasiko da eta maiatzaren 6an edo 13an jokatu-ko dituzte finalak. Txapelketa irekia izanen da, kategoria bakoitzeko 32 pilotari onartuko dira eta kanporaketak igande goizetan jokatu-ko dituzte.

Eskualdeko txirrindulariak ere sarituak Nafarroako txirrindularitzaren galan

TTIPI-TTAPA

Altsasuko Iortia kultur gunean ospatu zuten abenduaren 28an Nafarroako Txirrindularitzaren Gala eta 2022ko konpetizioetan, errepedean nahiz mendi bizikletan egindako lanaren saria bildu zuten Baztan, Malerreka eta Bidasoaldeko zenbait txirrindularik.

Beñat Barberena, Baztandarra: Errepideko Nafarroako Kirol Jokoetan, lehen urteko alebinetan hirugarren. **Ekiñe Bertiz**, Baztandarra: Mendi bizikletako Nafarroako Kirol Jokoetan, infantiletan hiruga-

ren. **Ander Larraburu**, Ermitagaña: Errepideko Nafarroako Kirol Jokoetan, lehen urteko infantiletan irabazle. **Joritz Barberena**, Villavés: Errepideko Nafarroako Kirol Jokoetan, bigarren urteko infantiletan bigarren. **Unax Larraburu**, Iturrotz: Mendi bizikletako Nafarroako Kirol Jokoetan, kadete mailan hirugarren. **Hodei Aleman**, Baztandarra: Mendi bizikletako txapelketan, junior mailan bigarren. **Ugaitz Otxandorena**, Villavés: Errepideko txapelketan, junior mailan bigarren. **Gaizka Otxandorena**,



Altsasuko galan izan ziren eskualdeko txirrindularietako batzuk.

Beti Gazte: Errepideko master 30 txapelketan hirugarren. **Iñaki Villoria**, Sarribikes: Errepideko txapelketan, Master 50 kategorian lehenbizikoa eta mendi bizikletan, master 50

kategorian bigarrena. **Francisco Meoki**, AEL Txirrindulari: Errepideko Master 60 txapelketan lehena. **Luciano Mitxelena**, Beti Gazte: Master 60 txapelketan bigarrena.



Uterga txapeldun eta Jabalera txapeldunorde, Eguberrietako buruz burukoan.

Uterga garaile Eguberrietako buruz buruko txapelketan

Abenduaren 22an Labriten jokaturako finalean 30-19 irabazi zion Jabalerari, doneztebarren arteko lehian

TTIPI-TTAPA

Pronostikoak bete eta Eguberrietako erremonete txapelketa-Martiko Sari Nagusia irabazi zuen abenduaren 22an Xanti Uterga doneztebarrak. Jendetza bildu zen Iruñeko Labrit pilotalekuan jokaturako finalean, 30-19 irabazi zion Aimar Jabalera herritarrari.

Beraz, betetaria gaztetasunari nagusitu zitzaion eta gisa honetara, 2022ko lau txapel handiren jabe egin da Uterga: Iruñerrikoa, Nafarroakoa eta Azpeitiko binaka eta buruz buruko Eguberrietakoa.

Halere, Labriteko finalean indartsu hasi zen Jabalera eta lehen hiru tantoak gazteak

egin zituen, Labritera eraman zituen zaleen gozamenerako. Hiruna berdindu zuen Utergak, baina berriz ere Jabalera 3-5 aitzineratu zen. Bosna berdindu zuen berriz ere betetarioak eta hortik aitzinera beti nagusi izan zen markagailuan (8-5, 8-6, 12-6, 12-8, 14-8, 14-9, 17-9, 17-12, 20-12, 20-15, 23-15, 23-16, 25-16, 25-17, 26-17, 26-18, 29-18, 29-19 eta 30-19). Sakez 5 tanto eta falta bat egin zituen Utergak eta 4 tanto egin eta faltarik ez Jabalerak. Jokoak 17 tanto egin zituen eta 8 Jabalerak eta 6 pilota galdu zituen Utergak eta 8 Jabalerak.


Finalaren aitzineko partidari, Zeberio II.ak eta Otanok 35-30 irabazi zieten Matxin III.a eta Aimar Saldias oiztarrari. Finalerako jaialdian bildutako dirua, Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren Elkarteari emanen zaio.

Afizionatu mailakoa

Nafarroako afizionatuen txapelketan sartzeko bi partida ere jokatu zituzten abenduaren 16an eta 17an Irurritako Aranabian. Iturregik eta Sagasetak 35-23 irabazi zieten Maylin II.a eta Leatxeri eta 35-27 Pikabea eta Mitxeori.

Asier Valverde Nafarroako ziklo- kros txapeldun

Abenduaren 17an jokatu zen Iruñeko 4. Ziklo-kros txapelketa eta master kategoriako Nafarroako txapelketa ere bertan erabaki zen. Zirkuitu polita bezain gogorra osatu behar izan zuten txirrindulariek eta Iruña Kirolak CX Team taldean ari den Asier Valverde beratarrak, proba bikaina eginenez, Nafarroako txapelketa irabazi zuen Master50 mailan. Biharamunean, Aragoiko ziklo-kros txapelketak azkenean proban parte hartu zuen Valverdek. Hirugarren izan zen proba honetan eta bigarren sailkapen nagusian.



Asier Valverde txapeldun.



UTZITAKO ARGAZKIA

Nafarroako Kirol Jokoetan neskak bikain

Nafarroako Kirol Jokoen nesken pilota txapelketako finalak jokatu zituzten abenduaren 16an. Jubeniletan, Goiuri Zabaleta leitzarrak eta Agorretak jantzi zuten txapela eta alebinetan, Nahia Almandoz eta Joana Iratzoki igantziarrek 18-15 irabazi zieten Leiane Altzuri eta Garazi Iñigo iturendarrei.



ERREKA KE

Karrikaburu nagusi Bortz Kirol txapelketan

Txapelketa osoan erakutsi duen nagusitasuna abenduaren 17ko finalean ere nabarmen utzi zuen Donibane Garaziko Jerome Karrikaburuk eta Erreka elkarteak lehen aldiz antolatutako Bortz Kirol txapelketaren finala irabazi zion Andoni Ugalde oiartzuarrari (88-49) Ezkurra pilotalekuan.



ONDIKOL

ELIZONDO San Anton Eguna

Txistulariak goizetik, 11:00etan baztan zopak eta 13:00etan zozketa.
Plazan, urtarrilaren 17an, goizez.

IKUSKIZUNAK

IRURITA

'Sagastitarrak' helduendako antzerkia

Txalo Produizioaren eskutik.
Gizarte Bilgunean, urtarrilaren 22an, 18:00etan.

LEITZA

'Aho bete hortz' haurrentzako ikuskizuna

Ekain pailazoaren eskutik.
Herri Aretoan, urtarrilaren 25ean, 17:00etan.

PROIEKZIOAK

LEITZA

Zinema

Herri Aretoan, urtarrilaren 14an eta 15ean. 16:30ean 'Hopper oilaskoerbia' eta 19:00etan 'As bestas'.

IRURITA

'Berpiztu' dokumentala

Gizarte Bilgunean, urtarrilaren 20an 19:00etan.

TAILERRAK

DONEZTEBE

'Administrazioa zugandik hurbil' ikastaroa

Nafarroako Gobernuaren eskutik.
Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, urtarrilaren 12an, 12:30etan.

ELIZONDO

'Jolasak eta solasak' haur eta gurasoendako tailerra

Dindaia Fundazioaren eskutik.
Arizkunenean, urtarrilaren 14an, 17:00etan. Izen-ematea euskara@baztan.eus helbidean.

Etxebizitzari buruzko solasaldia

Joxe Abaurrearen eskutik.
Arizkunenean, urtarrilaren 19an, 19:00etan.

Ordeseako karstaren esplorazioari buruzko solasaldia

Ernesto Praten eskutik.
Amezti elkartearen, urtarrilaren 20an, 19:00etan.

JARDUNALDIAK

SARA

Etxola gaztetxeko bizkar besta

Bertso poteoa eta kontzertuak: Basapiztiak, Ozpinduk eta Dj Jotxato
Urtarrilaren 14an.

BERA

Mendiaren Eguna

Eskalada tailerra, Santa Barbarako kaskora kronoigoera, ibilaldi gidatua, lasterketa, merienda eta 'Kumbakharnatik haratago' dokumentalaren proiektzioa
Urtarrilaren 14an.

BAZTAN

(H)ilbeltza Euskal Nobela Beltzaren Astea

Liburu aurkezpenak, solasaldiak, proiektzioak, itzuliak eta kontzertuak.
Arizkun, Anizen, Iruritan, Elizondon, Erratzun eta Oronoz-Mugairin, urtarrilaren 23tik 29ra.

BERTZELAKOAK

ORONÓZ-MUGAIRI

Baztan Kantuz

Urgain jatetxeko plazan, urtarrilaren 15ean, 12:00etan.

ELIZONDO

'Lur azpiko solasak. Loizuko gizona' erakusketa

Arizkunenean, urtarrilaren 16tik 20ra, 17:00etatik 20:00etara.

BAZTAN

Amaiurko indusketa lanak eta Erratzuko bunkerrak ezagutzeko ibilaldia

Mattin Aiestaran eta Eneko Eskuderoren eskutik.
Urtarrilaren 21ean, 10:00etan.

BERA

Azkena II. Ziklo-kros Txapelketa

Urtarrilaren 22an, 09:45etik aitzinera.

Nire aukera

«Neure burua defenditzeko gai izatearen segurtasuna ematen dit kenpo kaiak»

IZAR IRIARTE ITURBIDE IGANTZIKO KENSHIA



17 urteko igantziarra da Izar Iriarte Iturbide, geldirik egoten ez dakiena: «irakurtzea, bidaia-tzea eta kirola egitea hagitz gustuko dut. Euskal dantzak, hip-hop, gimnasia artistikoa, herri kirolak eta bertzelako kirolak ibili izan naiz, baina gaur egun kenpo kai bertzerik ez dut egiten».

Bigarren batxilergoa egiten ari da, eta argi du etorkizunean egin nahi duena: «betitik ikasi nahi izan dut arkitektura, beraz unibertsitatera joanen naiz hurrengo urtean. Aukerak begiratzen hasita, seguruenik Madrilera joanen naiz, baina aurrerago, ahal badut, Euro-para joatea gustatuko litzaidake».

Familiako zaletasuna

3 urte zituela hasi zen kenpo kai arte martziala ikasten: «izebak kenpo kai klaseak

ematen zituen herrian eta izena eman nuen». Horrela bihurtu zen *kenshia* (kirol honetako ikaslea) eta geroztik, klaseak Beran ematen segitzea erabaki zuen, «gustuko nuelako eta familian afizio hori genuelako». Izan ere, «nire izeba batzuk kirol honetan arituak dira, eta lehengusu ia guztiak aritzen ginen, beraz, elkarrekin egoteko aukera ona zen».

Kirol japoniarra da kenpo kaia, eta Iriartek azaldu duenez, «erranahi literala *ukabilararen metodoen bilketa* da. Hau da, nagusiki defentsa

«FAMILIAN KENPO KAIRAKO AFIZIO HANDIA IZAN DUGU BETI»

pertsonalean oinarritutako arte martziala da». Gainera, «norberaren gorputzaren kontrola, gogortzea, armen erabilera... ikasten da».

Entrenamenduen garrantzia

Gaur egun, astelehen eta asteazkeneko ordubetz entrenatzen da Berako polikiroldegian, «baina txapelketa garrantzitsu baterako prestatu behar baldin banaiz, larunbatetan ere bi orduz aritzen naiz Elizondon».

«Entrenamenduetan ekipoa janzten dugu, hau da, kaskoa, eskularruak, petoa eta zango-babesak, eta berotzeko konbateak egiten ditugu biko-teka. Gero lauko taldeetan biltzen gara, eta bik konbatea egiten duten bitartean, bertze biek arbitratu egiten dute, horrela, arbitratzen ere ikasten dugu. Azken ordu erdian, era guztietako *katak* lantzen ditugu; armekin, armarik gabe, katanarekin... eta autodefentsa teknikak, egoera erreala batean behar izanez gero aplikatu daitezkeenak».

Eraso bati aurre egiteko «milaka teknika» daude, «eta guk batzuk ikasteaz gain, teknika propioak asmatzen ditugu; immobilizazioak, itotzeak, jaurtiketak, artikulazioen luxazioak...». Konbateetarako gaitasunean trebatzeaz gain, «malgutasuna, erresistentzia eta abiadura lantzeko ariketak ere egiten ditugu, beraz, nahiko kirol konpletoa da».

«Defendatzeko gai izatearen segurtasuna»

Duela urte batzuk gerriko beltza (mailarik altuena) lortu zuen

Iriartek: «hori lortzeko azterketa bat egin behar izan nuen, atal teoriko eta praktikoa bat gaituz. Atal teorikoa azterketa idatzia da, non kenpo kaiari buruzko oinarriko ideiak dakizkizula erakutsi behar duzun». Gerriko beltzetik aitzinera, *dan* deituriko mailak lor daitezke azterketak gaituz, «baina hagitz zorrotzak dira eta ongi prestatu behar da horietarako».

Igantziarrak gehien gustuko duena «kirolak ematen didan segurtasuna» da. «Hobe da klasean ikasitakoa bizitza errealean inoiz erabili behar ez izatea, baina zerbait gertatuz gero, badakizu nola erreakzionatu eta momentuko nerbioak hobe kontrolatzen, klasean mila aldiz errepikatzen ditugulako egoera horiek».

Lehengusina lagun

Ttikitatik Alaitz lehengusinarekin batera hartu ditu kenpo kai klaseak; «hagitz harreman estua genuen baina herri desberdinetan bizi ginenez, zaila zen elkar ikustea, eta elkartzeko aitzakia ere baziren klaseak». Orain maila altura ailegatura dira biak; «abuztuan Japoniara Munduko Kenpo Kai Txapelketara joatekoak ginen. Urte oso eman genuen gogor prestatzen, baina ekainean jakinarazi ziguten bertan behera gelditu zela Covidarengatik».

Hala ere, azaroan Espainiako txapelketa egin zen Madril, eta bertan izan ziren bi lehengusinak. Emaizta ikusgarriak lortu zituzten, hainbat modalitateen podiumera igoz.

Etorkizunera begira

Ikasketak direla eta, «etorkizunean ez dakit Berako klaseetara joaten segitzen ahalko dudana. Baina edozein lekutan nagoela ere, denbora eta gogoia baldin badut, seguru kenpo kaiarekin segitzeko aukera izanen dudala».

«TEKNIKAK IKASTEAZ GAIN, GUREAK SORTZEN DITUGU»

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN HARTZEKO

ELIZONDO. Lana duen emakume bat pisu bila. ☎644 33 15 83.

KONPARTITUAK

BERA. Malerrekan lan egiten duen gizon euskalduna etxebizitza edo logela bila, pertsona batentzako. Ez zaio axola konpartitzea edo bestela, estudio bat edo zerbait pertsona batentzako. ☎675 03 14 77.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Eltzetako plazan lurpeko aparkalekua errentan emateko. ☎629 48 06 24.

LANA

ESKAINTZAK

ELIZONDO. Jatetxe batean asteburu-ruetan aritzeko zerbitzaria behar dute, bazkari eta afari orduetan. WhatsAppz idatzi, faborez. ☎660 90 78 24.

BKZ-Nafarroa Abenturan autobuseko txofer bat behar dute. Ordutegi ona, eta otsailetik aitzinera kontratua baldintza onekin hasteko prest. Deitu edo edo NARBARTeko Aterpetik pasatu. ☎948 59 23 22.

LESAKA. Lindurren borda sagardotegian asteburuetan lanean aritzeko zerbitzari euskalduna behar dute. ☎948 63 72 12.

GOIZUETA. Maingenea baserrian langile bat behar dute baserriko lanak egiteko, lanaldi osoko kontratuarekin. Hasieran lau hilabeteko kontratu, luza daitekeena. Gidabaimena beharrezkoa eta esperientzia izateak balio du baina ez da nahitaezkoa. Baztandik, Leitzal-detik eta Hernanitik joateko modua loturik dago, norbere ibilgailua erabili gabe. ☎655 70 60 73.

ANIMALIAK

SALGAI

Hamar ardi mutur gorri salgai, ernari. ☎607 89 09 66.



Zakurkume polit bat salgai, 50 eurotan. Ama collie arrazakoa eta aita euskal zakurra. Informazio guztia WhatsApp bidez. ☎636 18 15 46/948 58 11 36.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira
TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da
Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)
TTIPI-TTAPA ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

MOTORRAK

SALGAI



Citroen Berlingo autoa salgai, 130.000 kilometro, 2015ekoa, diesela. 8.700 euro BEZa barne. IAT (ITV) eta azterketa pasatu berriak. ☎647 84 02 10.

DENETARIK

SALGAI



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.

IRAGARKIAK INTERNETEN

Sail honetako iragarkiak gure webgunean ere argitaratzen ditugu hilabete batez. Ikusi iragarki guztiak Interneten:
<https://erran.eus/sailkatuak>

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,25 €
- 1.koa 5,13 €
- 2.koa 5,01 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,50 €
- 1.koa 5,36 €
- 2.koa 5,22 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kana-lean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00 €
- Idixkoak 150,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00 €
- Idixkoak 140,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,17/5,27€
- Zaldi-behorrak: 2,49/2,66€

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 9,80/9,90 €
- 8-10 kilokoak: 7,90/8,60 €

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 80 €

Zerri gizona 1,645 €

Zerramak 0,840€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua abenduaren 23tik 30era bitarteko prezioak)



**SANTESTEBAN
TAILERRAK**




KANGOO FURGON 1.5 dci 75 CV
2018 urtekoa – 48.000 km
PREZIOA 10.495 + BEZ



KANGOO FURGON 1.5 dci 75 CV
2015 urtekoa – 44.000 km
PREZIOA 8.675 + BEZ

www.taileressantesteban.com

DONEZTIBE - T. 948 450 282
info@taileressantesteban.com



Etxeko su egurra salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanez dizugu egurra. Deitu konpromisorik gabe. ☎629 45 14 26.

GALDU-AURKITUAK



BERA. Zorrotxo haxe agertu zen abendu erdi aldera Eztegara pilota-lekuan. ☎620 82 87 57.



744 484 361

ttipi-ttapa

URTEBETETZEAK



Gure etxeko bi ttikiak urteak bete dituzte. **Ekai Zubirik** abenduaren 13an bi urte bete ditu eta **Maddi Apeztexeak** abenduaren 26n urteak! Zorionak zuei eta zorionekoak gu!!! Gaztelu eta Goizuetatik txokolatezko muxuak!!



Maddi Apeztexeak urtea bete du abenduaren 26an. Zorionak eta aunitz urtez familiaren partez. Muxu handi bat!



Urrozko **Ibai Matxiñenak** urtarrilaren 18an 5 urte beteko ditu. Aunitz urtez morroxko! Egun polita pasa, familia guziaren eta bereziki Arene eta Ugaitzen partez!



Doneztebeko **Iraide Gogorza Etxeberriak** 9 urte beteko ditu urtarrilaren 21ean. Zorionak eta muxu pila amatxoren partez!!



Sunbillaiko **Iraide, Garaine** eta **Anderrek** urtarrilaren 19an 14 urte eta 24an 5 urte beteko dituzte. Aunitz urtez hirukote familia guziaren partetik eta bereziki zuen guraso, anaia, lehengusu eta ataubi-amatxiren partez. Merienda eder baten esperoan geldituko gara. Gozatu zuen urtebetetze egunaz. Muxuak.



Zorionak eta aunitz urtez etxeko bi **muttikoei**. **Gorkak** urtarrilaren 6an bete ditu urteak eta **Enekok** urtarrilaren 22an beteko ditu. Muxu erraldoi bana etxekoan partetik.



Zorionak *bonbon*!!! **Enekok** 3 urte beteko ditu urtarrilaren 22an. Egun zoriontsu bat izan dezazula Etxalarko eta Zugarramurdiko familiaren partez!



Aunitz urtez Arraiozko **Aiora** eta **Urko Arraztoari**, urtarrilaren 22an eta otsailaren 7an, 10 eta 4 urte beteko baitituzte!! Egun polit-polit bat pasa dezazula eta muxu aunitz familia guziaren partetik, baina bereziki zuen anaia Oinatzen partez!!



Mikel San Sebastian Gaztelumendik urteak bete ditu urtarrilaren 11n. Bertze urte batez urrutu zure urtebetetze egunean, baina familiak eta lagunak berriz beteko dute zulo hori maitasunez. Segi indarrez, zure indarra gure indarra delako. Denak ETXEAN eta ASKE izan arte ez garai izanen gu ere ASKE. Besarkada handi bat familiaren partez.



Manex Migelena Muniategik urtea bete du urtarrilaren 11n. Zorionak Manex, dagoeneko urtebete! Muxu pila bat gurasoen eta familiaren partez.

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak TTIPI-TTAPARI!
Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta; TTIPI-TTAPAREN **bulegora** etorrita, **postaz** argazkia eta testua helbide honetara bidalita: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA edo **Whatsapez** 744 48 43 61 telefonora idatzita.
Ordaintzeko: 5 € argazki ttikia eta 10 € handia. Bulegoan eskudirutan edo ERRAN.EUS/TPV/ORDAINKETA webgunean sartuta: kreditu txartelarekin, transferentzia eginez edo Bizum bidez.

SORTZEAK

- **Mila Saint Martin**, Sarakoa, abenduaren 6an.
- **Iraia Pikabea Orbegozo**, Arantzakoa, abenduaren 20an.

SORTZEAK ETA EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu edo info@ttipi.eus helbidera idatzi beharko du.

KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicitaria
www.kulturkari.com

Enpresentzako materiala

Txartelak, gutun-azalak, orriak, talonarioak, karpetak, zigiluak...

Hainbat euskarri

Era guztietako formatuak eskaintzen dizkizugu zure enpresa bistaratzeko

OROIGARRIA

**Josefa
AGESTA JORAJURIA**
Bernardo Bazterrikaren alarguna

Sunbillan, 2022ko abenduaren 15ean,
95 urte zituela

*Ama, amatxi, birramatxi.
Beti gure bihotzean egonen zara.*



ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Jose Manuel
OSKOZ ITURRIA**

Arantzan, 2022ko azaroaren 24an,
86 urte zituela



*Bortz seme-alaba ederreko familia duzu zuk hazi,
Zazpi iloba eta bi birbiloba dituzu bidean hazten utzi,
Erraten ahal dugu gizon, atta eta
atautxirik hobereenarekin ditugula mila momentu bizi,
baina ez genuen pentsatzen
emazte, ama eta amatxirik ederrenaren ondora
joanen zinenik horren agudo eta goizik.
Elkar maitatzen segituko dugu, nahiz eta zu orain falta izan gure ondotik!*

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Mike
IBARRA DENDARIETA**
Tia Mike

Elizondan, 2022ko abenduaren 16an

*Zuk utzitako hutsuneak utzi gaitu hotz
bizitza batzuetan zein den gogor
zauden tokitik aitzinat segitzen
lagunduko gaituzulako
Zurekin bizitako momentuak
beti izanen ditugu hor.*



XABIER, MARIJO-MIKEL, ARANTXA, JON ANDER

OROIGARRIA

**Luisito
GUERRA URTXEGI**

Igantzin, 2022ko abenduaren 19an,
80 urte zituela

*Umorez eta alaitsu
egoten ginen elkarrekin,
eta oroitzapen ahaztezin horiek
beti geldituko dira gurekin.*



ZURE FAMILIA

Berako San Jose egoitzako boluntarioei eta langileei eskerrak
bihotz-bihotzez egin duzenagatik.

OROIGARRIA

**Miguel Jose
SAGASTIBELTZA ZABALETA**

Leitzan, 2022ko abenduaren 25ean,
72 urte zituela

Lurak goxo har zaitzala.



ZURE FAMILIA

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Irufea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

IZARRA
HEREN ZURE ONDOAN
AGUA, A FULGUR

Gure lurra,
gure jendek,
gure sustraiak



TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

BB
BAZTAN
BIDASOA
Ghorrota Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

HILBERRIAK

- **Philippe Recuze**, Sarakoa, abenduaren 1ean, 57 urte zituela.
- **Juana Apezetxea Zubieta**, Goizuetakoa, abenduaren 6an, 95 urte zituela.
- **Pierre Lamothe**, Sarakoa, abenduaren 11n, 79 urte zituela.
- **Tomas Aranburu Gogorza**, Leitzakoa, abenduaren 9an, 92 urte zituela.
- **Tomas Mitxelena Mitxelena**, Berakoa, abenduaren 12an, 75 urte zituela.
- **Giuseppe Sapuppo Tarantino**, Doneztebekoa, abenduaren 13an, 84 urte zituela.
- **Xabier Olano Zubillaga**, Leitzakoa, abenduaren 13an, 48 urte zituela.
- **Teodosio Indaburu Mendiburu**, Zugarramurdikoa, abenduaren 14an, 93 urte zituela.
- **Christian Bondon**, Sarakoa, abenduaren 16an, 73 urte zituela.
- **Pedro Jesus Telletxea Aranburu**, Elizondokoa, abenduaren 16an, 83 urte zituela.
- **Florencio Oskoz Iñarrea**, Almandozkoa, abenduaren 16an.
- **Mike Ibarra Dendarieta**, Elizondokoa, abenduaren 16an.
- **M^a Concepcion Alzuri Maia**, Leitzakoa, abenduaren 17an, 72 urte zituela.
- **Luisito Guerra Urtxegi**, Igantzikoa, abenduaren 19an, 80 urte zituela.
- **Andresa Bikondoa Bikondoa**, Elizondokoa, abenduaren 20an, 92 urte zituela.
- **M^a Asuncion Betelu Satrustegi**, Leitzakoa, abenduaren 23an, 73 urte zituela.
- **Antonio Bengotxea Iturriria**, Erratzukoa, abenduaren 24an, 84 urte zituela.
- **Miguel Jose Sagastibeltza Zabaleta**, Leitzakoa, abenduaren 25ean, 72 urte zituela.
- **Paulino Aristi Zestona**, Gartzaingoa, abenduaren 27an, 76 urte zituela.
- **M^a Teresa Deskarga Bengoetxea**, Eratsungoa, abenduaren 27an, 92 urte zituela.
- **Sinforiana Iparrea Iturralde**, Elbetekoa, abenduaren 28an, 93 urte zituela.
- **Martin Saldias Indakoetxea**, Beintza-Labaiengoa, abenduaren 28an, 88 urte zituela.
- **Felicia Irigoien Alzugarai**, Igantzikoa, abenduaren 29an, 90 urte zituela.
- **Javier Arizmendi Bengoetxea**, Elizondokoa, urtarilaren 2an, 90 urte zituela.

BOTA BERTSOA

MALEN ALTZUART ARANBURU
ERRATZUKO BERTSOLARIA

2023, baduzu guri zer eska!

Doinua: Aresoarren bandera

*Deus ez dugunez debalde,
abenduak ere alde.
Urte berria aise egin da zaharraren jabe.
Baina denboraren alde,
ez izan hotzen mirabe!
Eta zer aldatu dezakezun neguari galde.*

*Bizirik dirauen guda,
ailegatzen ez den uda.
Gehienak berdin segitzen badu egin nahi dut duda:
urte berria helmuga?
Zer etorkizun dugu ba?
Arropa aldatu dugu baina berbera da muda.*

*Ez dut nahi udazken motzik;
negu bero, uda hotzik:
gauzak diren bezala onartzeko ez da behar lots(ar)ik.
Aldarri eginez pozik,
injustizia biluzik!
Ez omen dago borrokak ur ez dezakeen izotzik.*



KONTATU KONTUAK



Eguberrietako loteak banatu ditu TTPI-TTAPAK. Kamisetak, hainbat tokitarako sarrerak, josteko lotea, liburuak, CDak... Halako produktuekin osatutako Eguberrietako hiru lote zozketatu ditu TTPI-TTAPAK Ttapi Txartela dutenen artean. Resu Irigoien Etxebeste igantziarra, Joxe Mari Ibarra Iriarte sunbildarra (argazkian Tere Irazoki Etxeberria emaztea ageri da) eta Maria Plaza Azkarate lekaroztarra izan dira sarituak. Zorionak!

KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidade
www.kulturkari.com

Etiketak eta pegatinak
Paperean edo biniloan
(opakua edo gardena)
Bobinan edo soltean,
formarekin moztuak...

PLAZAN BAZAN




JOAN-ETORRIA


Horra trenak: goian badoa, eta behean badator. Aurki itzazu bien artean dauden aldeak. Hamar dira guztira.



SUDOKUA

Trenari BULTZI ere deitzen zitzaien lehen. Ba al zenekien? Osa ezazu sudokua, BULTZI hitza osatzen duten hizkiekin (B, U, L, T, Z eta I). Hizki bakoitzak behin agertu behar du lerro, zutabe eta area bakoitzeko.





MARGOTU

Hona hemen tren zahar bat. Dena margotu baino lehen, marraztuko dizkiozu:

- 1) ke beltz zikina. Tximiniatik gora ezkerreantz doa.
- 2) Bi txantxangorri zorabiatuta.
- 3) Gidariaren burua leihoan, bisera eta guzti.
- 4) Zure gustuko animalia (zakurra, elefantea...) kabinako teilatuaren gainean.

PAREAK BAI!

Eskularru hauen artetik batek ez du parearik.
Zein da?



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

Ttipi Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Kontakotako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

820 zenbakiko
irabazleak >



GABONETAKO 1. LOTEA

Resu Irigoien Etxebeste | IGANTZI

GABONETAKO 2. LOTEA

Jose Mari Ibarra Iriarte | SUNBILLA

GABONETAKO 3. LOTEA

Maria Plaza Azkarate | LEKAROS

ZOZKETAK

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



Bi sarrera

BUATXABAL

www.buatxabal.com



Poltsa bat

BIDASOIL

N-121A errepidea 74. Km. Behobia/Irun



30€ko deskontua

EZKEXA

www.ezkexa.com



Kamiseta bat

MARTIKO

www.martiko.com



Lote bat

ARRATE ESTETIKA ZENTROA

Eliza karrika, 18 - Doneztebe



Azala zaintzeko produktuak

IZAR PARK

www.galaxypark.eus



Sarrera bat

**MU
SI
KA**



Liberu bat
CD eta DVD

baga-biga

www.baga-biga.eus

www.baga-biga.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.airakamusic.com



www.saltingcenters.com